# PLAN ESTRATÉGICO PARA LA IGUALDAD ENTRE MUJERES Y HOMBRES EN NAVARRA

# NAFARROAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLAN ESTRATEGIKOA

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
AGENDA 2030

## ZU HEMEN ZAUDE

- **Emakumeen erailketak:** 1998tik hona, 20 emakume erail dituzte Nafarroan, emakume izateagatik soilik.
- **Emakumeen kontrako indarkeria:** 2021ean, 1.639 salaketa ezarri ziren, eta horietatik 219 sexu indarkeriagatik. Hilean, batez beste, 136,58 salaketa jartzen dira.
- **Generoaren ondoriozko soldata arrakala:** Urteko irabazi osoen batezbestekoa erreferentzia modura hartuta, soldata arrakala azken urteotan ez da % 23tik jaitsi. Hala ere, pixkana-pixkanaka behera doa. Arrakala handia da Nafarroan eta horretan eragina du gure komunitateko industrializazio eta nekazaritza jarduera garrantzitsuak. Izan ere, bi esparru horiek oso maskulinizatuta daude.
- **Arrakala zaintza lanetan:** Etxeko eta zaintza lanetan emakumeen eta gizonen dedikazioari dagokionez genero arrakala garrantzitsuak daude oraindik. Zaintza lanak batez ere emakumeek egiten dituzte, eta, horregatik, emakumeek neurri handiagoan eskatu eta gozatzen dituzte bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko eszedentziak, lizentziak eta baimenak.
- **Arrakala osasunean:** Osasunaren arloan ere handiak dira emakumeen eta gizonen arteko aldeak. Emakumeen bizi itxaropena jaiotzean handiagoa da bizi ohitura hobeak dituztelako. Hala ere, adin guztietako emakumeek uste dute haien osasuna gizonena baino okerragoa dela.
- **Arrakala enpleguan:** 2020an, Nafarroako aldi baterako enpleguen % 78,90 emakumeenak izan ziren.
- **Arrakala babes sozialean:** 2020an, Errenta Bermatuko titularren % 59 emakumeak izan ziren Nafarroan.
- **Arrakala teknologikoa:** Batez ere teknologiaren kontrolean gertatzen da; izan ere, emakumeak erabiltzaile onak dira, baina teknologiaren sormenean oso gutxi dira. Esan daiteke emakumeek baliabidea erabili erabiltzen dutela, baina ez dute hura kontrolatzen.
- **Arrakala kirolean:** Emakumeen eta gizonen parte hartzeari dagokionez, arrakala nabarmena da kirola egiteko modu guztietan (izan kirol federatua edo federatu gabea) eta segregazioa gertatzen da kirol diziplina motari dagokionez. Emakumeen parte hartzea txikiagoa da eta diziplina gutxiagotan hartzen dute parte.

AURKIBIDEA


1 **AURKEZPENA** 4

2 **PLAN ESTRATEGIKOAREN GAKO ELEMENTUAK** 6

2.1. ARAU ESPARRUA ZEHAZTUKO DUEN PLANA

2.2. PROZESU PARTE HARTZAILE ETA PLURALISTAREN EMAITZA DEN LAN PLANA

2.3. AURREIKUSITAKO ESKU HARTZEA ORIENTATUKO DUTEN LAU PRINTZIPIOAK

2.4. LABURBILDUZ... PLAN ESTRATEGIKOAREN GAKOAK

3 **EKINTZA PLANA** 14

3.1. PLANGINTZAREN EGITURA

3.2. I. ILDO ESTRATEGIKOA. GENERO IKUSPEGIA FORU ETA TOKI ADMINISTRAZIOEN GOBERNANTZA EREDUAN TXERTATZEA

3.3. II. ILDO ESTRATEGIKOA. GENERO BERDINTASUNA DUEN EREDU SOZIOEKONOMIKORANTZ URRATSAK EGITEA

3.4. III. ILDO ESTRATEGIKOA. EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIARI BUKAERA EMATEA

3.5. IV. ILDO ESTRATEGIKOA. GIZARTE ZIBILAREN PROTAGONISMOA SUSTATZEA EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA ERAIKITZEN ETA SENDOTZEN

4 **PLAN ESTRATEGIKOAREN KUDEAKETA** 78

5 **ADIERAZLE SISTEMA** 89

6 **ERREFERENTZIAZKO ARAUDIA** 108

6.1. PLANA BERDINTASUNEKO ERREFERENTZIAZKO FORU ARAUDIAREKIN ETA GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUEKIN (GJH) LERROKATZEA

6.2. ARLO HORRETAKO ESTATUKO ETA NAZIOARTEKO BESTELAKO ARAUDIAK

# 1. AURKEZPEN

Plan hau “Zu hemen zaude” izeneko atalarekin hasi da, hain zuzen ere gaur egun bizi dugun unera bidaltzen gaituena,
gaur egun, 2022an, oraindik ere, Nafarroako emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunek irauten dutelako, eta halaxe islatu dira. Plan honen helburua da sei urte barru gure gizartea berdintasun kota altuagoetan egotea eta maila guztietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun egiazkoa eta eraginkorra lortzetik gertuago egotea.

Administrazio publiko orori dagokigu irauten duten berdintasun gabezia horien aurrean posizio aktiboa izatea eta, horregatik, plan hau zeharkako tresna da, Nafarroako Gobernuko departamentu eta foru entitate guztietatik eta guztietarako prestatutakoa; gure erkidegoan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkor eta egiazkoa lortzea du helburu.

Horrez gain, Gobernuak berdintasunarekiko duen konpromisoak dakar harreman berdinzaleago eta justuagoen eredu berria eraiki beharra, gure gizartearen balio matxistak eta patriarkalak behin betiko alboratuko dituenak, horren ondorioak emakumeen aurkako hainbat indarkeriatan islatzen baitira.

Nafarroako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan Estrategikoak Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoetako berdintasuna sustatzeko ekintzen eta estrategien horizontea marraztu du, eta horretarako 14 helburu estrategiko bildu ditu, ondoren 57 helburu operatibotan banatzen direnak, azkenean, orotara, 279 ekintza jasoz. Horrez gain, dokumentuak araudi zehaztasuna eman dio Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legeari, eta berdintasun arloko Estatuko zein Europako arau esparruarekin lerrokatuta dago.

Gainera, gure foru komunitatean duela 25 urte baino gehiagotik emakumeek, mugimendu feministak eta berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako politika publikoek egin duten bultzada eta esfortzuaren emaitza da, betiere Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren lidergoarekin.

Oso plan parte hartzailea izan dela nabarmentzea garrantzitsua iruditzen zait. Plana prestatzeko prozesuan zehar 300 ekarpen baino gehiago jaso eta sistematizatu dira, eta, besteak beste, Nafarroako Gobernuko departamentuek, toki entitateek, Nafarroako Berdintasunerako Kontseiluak eta gizarte zibilak egindako ekarpenak erabakigarriak izan dira. Parte hartze handi horrek sinesten duguna indartzea dakar: kolektibo, entitate, elkarte eta erakundeen arteko lankidetzaren fruitu diren politikak dira politika publikorik onenak.
Argi dagoenez, ez dira garai errazak. Krisi global ugari pairatzeaz gain, iraganera eraman nahi gaituen mugimendu ukatzaileari ere aurre egin behar diogu, eta iraganeko garaiak ez ziren hobeak izan emakumeentzat. Horregatik, plan honek, inoiz baino gehiago, berdintasunaren eta politika feministen aldeko apustua egiten jarraitzeko konpromisoa irudikatzen du, argi eta garbi sinesten dugulako politika horiek eragin sakon eta egiazkoa dutela emakumeen eta nesken bizitzetan eta haien bizi baldintzak eta aukerak hobetuko dituztela.

**Javier Remírez Apesteguía**
Lehen lehendakariordea eta Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria

# 2. PLAN ESTRATEGIKOAREN GAKO ELEMENTUAK

# 2.1. ARAU ESPARRUA ZEHAZTUKO DUEN PLANA

**Apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legeak, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzkoak,** araua eragingarria izan eta haren izaera eraldatzaileak politika publiko osoa hartzeko helburuarekin, 14. artikuluan ezarri du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan Estrategiko bat eginen dela. Plan honen edukiak orrialde hauetan jaso dira, eta datozen sei urteetan Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoen berdintasun esku hartzeak orientatuko dituen plangintza tresna izanen da, hainbat helburu eta zeharkako ekintza zein ekintza zehatzen bitartez.

Plan estrategiko hau era parte hartzailean diseinatu, koordinatu eta bultzatzeaz arduratu den Nafarroako Gobernuko organismoa Nafarroako Berdintasunerako Institutua (aurrerantzean NABI) izan da. Plana egiteko prozesua 2021eko martxoan hasi zen.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Arauaz gain, plan hau beste esparru araudi batzuekin ere lerrokatzen da, bai erkidego mailakoak, bai Estatuko, Europako eta nazioartekoekin, zeinak kontuan hartu behar baitira estrategia hau eta haren edukiak ulertzeko.

## ERKIDEGO MAILAN:

- **14/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egitekoa;** emakume izateagatik emakumeen kontrako diskriminazio mota honen aurrean foru esku hartzerako esparrua da, giza eskubideen urratze larria dena, gainera.

- Araudiaz gain, emakumeen eta gizonen berdintasunerako esku hartze publikoaren arloan **toki eta foru administrazioen ibilbidea** aitortu eta horren balioa nabarmendu nahi da. Emakumeentzat herritarren eskubideak garatu eta finkatzeko aurretiazko konpromiso politikoa ezinbestekoa izan da Plan Estrategiko hau artikulatzea ahalbidetuko duen erakunde oinarri tinkoa izateko. Prozesu horretan, udal mailako planak eta ordenantzak aipatzeaz gain, **Nafarroako Foru Komunitateko Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako I. Plana 2006-2010** nabarmendu behar da; izan ere, berdintasunerako plangintza publikoko beste aldi bati dagokion arren, lehena izan zen, eta hura onartzea mugarri handia izan zen Nafarroako Foru Komunitatean.

2020an, **Genero Berdintasunaren Indizea** (GBI) 100etik 70ekoa izan zen Nafarroan; 2015ean egin zen azken neurketarekin alderatuz gero 0,9 puntu hobea da.

## ESTATU MAILAN:

- **1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa; 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa; 6/2019 Errege Lege-dekretua,** martxoaren 1ekoa, enplegu eta lanaren arloan emakumeen eta gizonen arteko tratu eta aukera berdintasuna bermatzeko presako neurriei buruzkoa, eta **902/2020 Errege Dekretua, urriaren 13koa, emakumeen eta gizonen ordainsari berdintasunari buruzkoa.** Horrez gain, emakumeen kontrako indarkeriaren esparruan, eta Nafarroako administrazio publikoetarako duen inplikazioagatik, **Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Ituneko Neurriak (2017)** gogoan izan behar dira.

- Azkenik, apartatu honetan erreferentzia egin nahi zaio **Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako III. Plan Estrategikoari (2022-2025);** berdintasun arloan Estatuko Administrazio Orokorraren datozen lau urteetarako agenda politikoa jasotzen du.

## EUROPA MAILAN:

- **Europar Batasunaren Genero Berdintasunerako Estrategia 2020-2025:** estrategiaren helburuak honako hauek dira: genero indarkeria desagerraraztea; genero estereotipoei aurre egitea; lan merkatuan genero arrakalak ixtea; ekonomiaren askotariko sektoreetan emakumeek eta gizonek berdintasunean parte har dezaten lortzea; soldataren eta genero pentsioen arrakalei aurre egitea; genero arrakala desagerraraztea zainketen esparrutik; genero oreka lortzea erabakiak hartzen direnean eta politika egiten denean.

- Europako Kontseiluaren hitzarmena, emakumeen kontrako indarkeriari eta etxeko indarkeriari aurre egin eta haren kontra borroka egitekoa **(Istanbuleko Hitzarmena, 2011)**: hitzarmen loteslea denez, inflexio puntua ekarri zuen emakumeen aurkako indarkeriari nazioarte mailan heltzeari dagokionez.

## NAZIOARTE MAILAN:

- **Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda.** Agenda global horretan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunak 17 helburuak zeharkatu behar ditu. Berdintasunaren zeharkako ikuspegiaz gain, bosgarren helburuan “genero berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neska guztiak ahalduntzea” lortzea ezarri zuen.

- **Emakumeei buruzko Beijingo IV. Mundu Konferentzia (1995)** eta haren Aldarrikapena eta Ekintza Plataforma; onetsi zenetik 25 urte baino gehiago joan direnean indarrean segitzen du. Nazio Batuek, **Generation Equality** kanpainaren testuinguruan, emakumeen eta gizonen berdintasunean aurrera egiteko bereziki premiazkoak diren sei esparru identifikatu dituzte, COVID-19aren pandemiaren ondorioz okerrera egin duen krisi globalaren testuinguruan: emakumeen aurkako indarkeria, justizia eta eskubide ekonomikoak, klima justiziaren aldeko ekintza feminista, teknologia eta berrikuntza genero berdintasunerako, gorputzaren, osasunaren eta sexu eta ugalketa eskubideen gaineko autonomia, eta mugimendu eta lidergo feministak.

- **Emakumearen kontrako diskriminazio mota guztiak ezabatzeko konbentzioa, CEDAW** (1979). Estatu mailan CEDAW 1983an berretsi zen, eta loteslea da.

# 2.2. PROZESU PARTE HARTZAILE ETA PLURALISTAREN EMAITZA DEN PLANA

Plan Estrategikoa prestatzeko prozesua batez ere 2021ean zehar garatu zen, eta lau fasetan egituratu da, helburu eta kontraste une desberdinekin. Fase bakoitzean interes taldeek hartu dute parte, rol osagarriekin; izan ere, aintzat hartu dira berdintasun arloko aditu mailako ezagutza, aurreikusitako esku hartzean izanen duten ardura eta eskaintzen zuten elkarrekintza maila. Lan faseetan 300 ekarpen baino gehiago jaso eta sistematizatu dira, eta, besteak beste, erabakigarriak izan dira Gobernuko departamentuek, toki entitateek, Nafarroako Berdintasunerako Kontseiluak eta gizarte zibilak egindako ekarpenak; azken kasu horretan, gizarte zibilak jendaurrean jartzeko fasean egin ditu ekarpenak. Parte hartze prozesua gidatua izan da, eta parte hartzearen emaitzak talde bakoitzari itzuli zaizkio, jakiteko egindako proposamenek zein eragin izanen duten planean eta ekarpenaren emaitzak ekarri duena. Jarraian, hedatutako parte hartze prozesua modu grafikoan aurkeztu da; pandemiak eragindako salbuespeneko aldia dela eta, moldatu egin behar izan da.



# PARTE HARTZE PROZESUA

## I. FASEA: DOKUMENTUA PRESTATZEA PLAN ESTRATEGIKOAREN

- Nafarroako Berdintasunerako Institutuak (NABI) lan dokumentala eta diagnostikoa egitea
- Erakundeetako eragileei, eragile ekonomikoei eta eragile sozialei argibideak ematea laneko
- Laneko prozesua Gobernu Irekian argitaratzea Herritarrei planaren eta haren xedearen gainean argibideak emateko material irisgarriak
- Plan Estrategikoaren oinarrizko dokumentua prestatzea + Nafarroako Gobernuko Berdintasunerako
- Oinarrizko dokumentua kontrastatzea Nafarroako Berdintasunerako Kontseiluarekin + toki erakundeekin + Nafarroako
- NABIk planaren atariko dokumentua prestatzea

**2021 - MARTXOA-AZAROA**

## II. FASEA: JENDAURREAN JARTZEA

- Informazioa hedatzea parte hartzea errazteko eta motibatzeko
- Gizarte zibilaren ekarpenak jasotzea (eragile sozialak eta ekonomikoak, emakumeen elkarteak, talde feministak, herritarrak)

## III. FASEA: KONTRASTEA ESPAZIO INSTITUZIONALEKIN

- Berdintasunerako Departamentuarteko Batzordea eta Nafarroako Gobernuko departamentuak
- Emakumeen kontrako Indarkeriaren aurrean Koordinatzeko Nafarroako Erakunde arteko
- Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa
- Parlamentuan ordezkaritza duten

**Behin betiko plan estrategikoaren proposamena prestatzea** (II. eta III. faseak)

**2021 - URRIA-AZAROA**

## IV. FASEA: EMAITZAK ITZULTZEA ETA DOKUMENTUA ONESTEA

- Parte hartzearen emaitzak eragile guztiei itzultzea
- Nahitaezko txostena
- Nafarroako Gobernuak
- Nafarroako Parlamentuak
- Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako

**2022 - ABENDUA-MARTXOA**

# 2.3. HELBURU ARGIA ETA ESKU HARTZE OSOA ORIENTATUKO DUTEN LAU PRINTZIPIO DITUEN PLANA

2022-2027 aldirako Nafarroako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan Estrategikoaren HELBURUA da politika publikoak duen izaera ez-neutrala aitortzen laguntzea eta bere jardun osoa eraldatzailea izan eta maila guztietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean eragin positiboa izatea ahalbidetuko duten elementuak gehitzea.

Horretarako, proposatutako esku hartzea Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legea arautzen duten JARDUKETA PRINTZIPIOETARA orientatu behar da; besteak beste, honako hauek nabarmendu behar dira:

## 1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUN PRINTZIPIOA

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna printzipio konstituzionala da, sexuagatik edozein diskriminazio zuzen edo zeharkakorik ez dagoela berekin dakarrena. Berdintasun printzipioa, printzipio juridiko unibertsala izateaz gain, herritarren balio aldaketa dakar, pertsona bakoitzak barneratu eta ikas dezan emakumeek eta gizonek eskubide berberak izateaz gain balio bera ere badutela.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioa formalki araudietan onartuta badago ere, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunik ez dago oraindik eta, orobat, emakumeen eta nesken kontrako diskriminazioak haien bizitzetako esparru guztietan gertatzen dira eta haien bizitzak baldintzatzen dituzte. Emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerantz aurrera joatea errealitate izan dadin Nafarroako Gobernuaren tresnetako bat da Plan Estrategiko hau. Horretarako, proposatutako esku hartzeak ekarriko du berdintasun printzipioa zeharkakotasunez txertatzea politika publikoen diseinuan, ezarpenean eta ebaluazioan, eta ekintza positiborako neurri berariazkoak eta aldi baterakoak abian jartzea, diskriminazioak ezabatu eta murrizteko.

## 2. EMAKUMEEN ETA NESKEN AHALDUNTZEA

Proposatutako esku hartzearen helburua emakumeen eta nesken ahalduntzea da, ezinbesteko baldintza baita emakumeen eta gizonen berdintasunerako. Ahalduntzea, banakako dimentsioan, prozesu bat da; horren bidez, emakumeek genero aginduak desmuntatzen eta baliabide propioak sortzen dituzte, lehen pertsonan beren bizitzen subjektu bilakatzeko.

## 3. GENERO IKUSPEGIA

Genero ikuspegia, printzipio bat bainoago, genero diskriminazioen aurrean analisi eta esku hartzeko metodologia bat da. Ikuspegi horri esker, gaur egun bizi garen eredu desberdin eta hierarkikoa ikusi eta ulertzen ahal dugu. Eredu hori botere eta domeinuzko harremanetan oinarrituta dago eta hartan emakumeak eta gizonak ez gaude egoera berean, ezta posizio berean ere. Hori hala izanik, emakumeen eta gizonen beharrak, lekuak, errealitateak eta itxaropenak desberdinak dira eta politika publikoek haiei guztiei eman behar die erantzuna.

## 4. INTERSEKZIONALITATEA

Emakumeen kontrako diskriminazioak eta berdintasunik ezak areagotu egiten dira patriarkatuan generoa bestelako indarkeria batzuekin lotzen denean, hala nola adinarekin, desgaitasunarekin, egoera sozioekonomikoarekin, familia eraketarekin, komunikazio hizkuntzarekin, arrazarekin, kulturarekin, landa eremuko izaerarekin, indarkeria matxistarekin edo sexu orientazio eta identitatearekin, besteak beste. Ikuspegi intersekzionalak aukera ematen du desberdintasun diskriminatzaileei aurre egiteko emakume guztiak onartuta, baita haien aniztasuna eta haien arteko aldeak errespetatuta ere. Ikuspegi horrek orri hauetan proposatutako esku hartze osoa zeharkatu behar du.

# 2.4. LABURBILDUZ... PLAN ESTRATEGIKOAREN GAKOAK

Planak foru eta toki administrazioak berdintasun arloan egin beharreko jarduna orientatuko du. 2022-2027 aldirako berdintasun arloko politika publikoen agenda jasotzen du.

Prestatu da hala agintzen baitu apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legeak, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzkoak (14. artikulua).

Bat dator maila desberdineko beste araudi eta esparru programatiko batzuekin, eta balioa ematen dio foru eta toki administrazioek berdintasunaren arloan egiten duten ibilbideari.

Haren zeharkako ekintza planak Nafarroako Gobernuko departamentu guztien politika eta jarduketetan eragiten du eta, horrela, ekintzak gauzatzea departamentu guztien ardura da, haien eskumenetatik abiatuta. Era berean, toki entitateak planaren parte egiten ditu berdintasunaren arloan dituzten eskumenak errespetatuz eta kontuan hartuz.

Proposatzen den lanak aintzat hartu behar du berdintasun formaletik berdintasun egiazko eta eragingarrirako jauzian genero ikuspegi intersekzionalarekin esku hartu behar dela, Nafarroako Foru Komunitatean emakume eta neska guztien ahalduntzea helmuga gisa jarriko duena.

# 3.
# EKINTZA PLANA

# 3.1. PLANGINTZAREN EGITURA

Plangintzaren logika jarraituz, lau lan ildo edo lehentasunezko gai esparrutik abiatuz esku hartzea planteatu da.

**I. ILDOA**

Genero ikuspegia foru eta toki administrazioen gobernantza ereduan txertatzea

**II. ILDOA**

Genero berdintasuna duen eredu sozioekonomikorantz urratsak egitea

**III. ILDOA**

Emakumeen kontrako indarkeriari bukaera ematea

**IV. ILDOA**

Gizarte zibilaren protagonismoa sustatzea emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eraikitzen eta sendotzen

Ildo bakoitza egituratzen da **bere helburu estrategiko eta operatiboen bitartez.** Bestalde, helburu operatiboak **ekintzetan** zehaztu dira, eta haiek gauzatzeko ardura zein administraziok duen adierazten da. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari dagokionez, ekintza bakoitza gauzatzeko ardura duen zuzendaritza zehaztu da. Ekintzak gauzatzeko **erantzukizuna,** irizpide modura, ekintza hori egiteko aurrekontua esleitua duen zuzendaritzari edo zuzendaritzei dagokie. Horrek ez du esan nahi Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren (NFKA) kasuan proposatu diren ekintza gehienetan beste zuzendaritza nagusi edo erakunde autonomoek ere esku hartu eta kolaboratzea. **NABIk**, NFKAn emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatu, aholkularitza eskaini, koordinatu eta ebaluatzeko funtzioak betez, ekintzen arduradun gisa ageri ez bada ere, babesa emanen die departamentuei ekintzak hedatzeko prozesuan, beharrezkoa denean.

Kudeaketa ereduan jaso den moduan, eta agiri honetan ageri denez, Plan Estrategikoak helburu estrategikoei (Genero Berdintasunaren Indizea) eta helburu operatiboei (emaitzen adierazleak) lotutako **ADIERAZLEEN** sistema du.



| 4 ILDO ESTRATEGIKO | 14 HELBURU ESTRATEGIKO | 57 HELBURU OPERATIBO | 279 EKINTZA |
|---|---|---|---|

# I. ILDO ESTRATEGIKOA

## GENERO IKUSPEGIA FORU ETA TOKI ADMINISTRAZIOEN GOBERNANTZA EREDUAN TXERTATZEA

# I. ILDOAREN DESKRIBAPENA

Esku hartzeko ildo honen bidez, foru eta toki administrazioetan "barnera" begiratu nahi da, sustatzen duten eta haren bidez jarduten duten gobernagarritasun ereduan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioa zeharka sar dezaten.

Esku hartze hau ez da berria NFKArentzat; halaber, zilegitasuna ematen dio ekintza publikoari, politika eta prozeduren multzoari kalitatea eta orientazio egokia ematen diolako. Administrazioaren “egitekoa” eraldatzeko prozesu horretan mugarri hauek nabarmendu nahi dira:

## EGITURAK

- 2010. urtetik, departamentuetan berdintasun unitateak ezartzeko prozesuan lanean ari da Nafarroako Gobernua. 2021ean berariazko langileak txertatu dira berdintasun unitateetan; Nafarroako Gobernuko departamentu bakoitzean berdintasun arloan bultzada, koordinazio eta lankidetzaz arduratuko diren administrazio egiturak dira unitate horiek.
- NFKAko Berdintasunerako Departamentuarteko Batzordea 2017an sortu zen.

## LANEKO ADMINISTRAZIO PROZEDURA KOMUNAK

- NFKAk 2010etik ebaluatzen du arau eta plan estrategikoek duten genero eragina, erakunde osoari eragiten dioten laneko prozedura komun eta irizpideen bitartez.
- Berdintasunerako eskubidea bermatzeko NFKAk dituen mekanismoak modu mailakatuan hobetu dira (berdintasun klausulak kontratu eta laguntza publikoetan, aurrekontu plangintza genero ikuspegiarekin, komunikazio inklusibo eta ez-sexista, berdintasuna plan sektorialetan eta zeharkako planetan, eta abar).

## BERDINTASUNARI BURUZKO PRESTAKUNTZA

- 2017. urtetik Nafarroako Gobernuak bere langileen berdintasun arloko gaitasuna “Genero Berdintasuna Politika Publikoetan aplikatzeko Prestakuntza Ibilbidearekin” lerrokatzen du.

## TOKI ERAKUNDEAK

- Nafarroako Gobernuak urtero toki erakundeetan berdintasun teknikariak kontratatzea diruz laguntzen du eta/edo laguntza teknikoa eta ekonomikoa ematen die berdintasun arloko proiektuak prestatzeko.

---

Esparru horretatik abiatuz, NFKAn berdintasuna zeharkako bihurtzeko plan honetan proposatutako estrategiak –genero mainstreaming-a– hiru zutabe ditu:

**A** Lehendik badena finkatu eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legea garatzea, bere irismena eta bultzada aprobetxatuz berdintasuna erdigunean jartzeko eta foru eta toki administrazioen jarduna zeharka dezan.

**B** NFKAren langileek berdintasun arloan duten prestakuntza espezializatuan aurrera egitea, haien beharrizan eta eskumenetatik abiatuz.

**C** Politika publikoen ustezko neutraltasuna desmuntatzea eta berdintasunerako duten eragin negatiboa murriztea, genero ikuspegia zeharkakotasunez eta modu sistematikoan txertatuz NFKAren lan prozedura eta mekanismoetan.

---

Berdintasuna toki eta foru administrazioen gobernantza ereduan txertatzeko eta gobernu ona lortzeko bidean aurrera egiteko, ildo hau **4 helburu estrategikotan** egituratu da; ondoren, helburu horiek **20 helburu operatibotan** eta **78 ekintzatan** zehaztu dira; 2022-2027 aldian zehar jarriko dira abian.

# 1. HE
# ERREFERENTZIAZKO BERDINTASUN ARAUDIA NAFARROARAKO GARATZEA

**0.0.1.1.**

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legea eta Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea foru eta toki administrazioetan betetzea ahalbidetuko duen berariazko araudia prestatzea.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **1.1.1.** Foru eta toki administrazioen abiapuntuko egoera aztertzea, berdintasun arloan erreferentziazko araudiari erantzuna emateko. | - NABI<br>- Toki erakundeak |
| **1.1.2.** Berdintasunean erreferentziazko araudi esparrua garatuko duten planak edo estrategiak onartzea. | - Nafarroako Gobernua |
| **1.1.3.** Foru politiketan berdintasun printzipioa zeharkakotasunez txertatzeko egiturak erregulatzea (berdintasun unitateak, berdintasunerako departamentuarteko batzordeak eta departamentu barruko batzordeak, etab.). | - NABI |
| **1.1.4.** Genero ikuspegia erakunde politiketan (genero eraginaren txostenak, berdintasun klausulak, zehapen araubidea, eta abar) txertatzea eraginkor egitea ahalbidetuko duten tresnak prestatzea edo egokitzea (araudiak, xedapenak, jarraibideak). | - Zuzendaritza guztiak |
| **1.1.5.** Berdintasuneko udal ordenantzak onestea. | - Toki erakundeak |

**0.0.1.2.**

Aurrekontu publikoak lerrokatzea berdintasun politikak erreferentziazko araudien exijentziekin garatzeko.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **1.2.1.** Urteko berariazko baliabide ekonomikoak kontsignatzea foru eta toki administrazioetatik Plan Estrategikoaren bitartez araudian aurreikusitako neurriak garatzeko. | - Zuzendaritza guztiak<br>- Toki erakundeak |
| **1.2.2.** Nafarroako Aurrekontu Orokorren gutxienez % 1 modu mailakatuan erreferentziazko araudia garatzera bideratzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politika publikoen bitartez. | - Aurrekontuen, Ondarearen eta Politika Ekonomikoaren ZN |
| **1.2.3.** Nafarroako Aurrekontu Orokorren genero eraginaren berri izan eta horren jarraipena egitea ahalbidetuko duten espazioak sortzea. | - NABI |

## 0.0.1.3. Berdintasunerako toki eta foru egiturak indartzea eta finkatzea.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **1.3.1.** Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren beharrizanen analisia, araudiak emandako funtzio eta eskumenen ondoriozkoak, eta horiei erantzuna ematea. | - NABI |
| **1.3.2.** Berdintasun unitateak Nafarroako Gobernuko departamentuetan modu homogeneo eta eraginkorrean ezartzeko ibilbidea prestatzea eta hedatzea. | - NABI |
| **1.3.3.** Estrategia bat garatzea toki erakundeek Nafarroako lurralde errealitate desberdinetarako egokiak izanen diren berdintasun egiturak bultza eta/edo finka ditzaten, denboran iraunen duen finantzaketa eredu batetik abiatuz (hitzarmenak). | - NABI<br>- Toki erakundeak |
| **1.3.4.** Berdintasunerako foru egitura administratiboak (berdintasun unitateak) eta tokikoak egokitzea eta errotzea aski baliabiderekin (langile espezializatu eta egonkorrak, zuzkidura ekonomikoa, tresna teknikoak, eta abar), haien beharrizanetatik abiatuz. | - Zuzendaritza guztiak<br>- Toki erakundeak |

## 0.0.1.4. Berdintasun araudiaren koherentzia eta eragin soziala ebaluatzea eta horren jarraipena egitea.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **1.4.1.** Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legearen ebaluazio parte hartzailea. | - NABI |
| **1.4.2.** Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legearen ebaluazio parte hartzailea. | - NABI |
| **1.4.3.** Nafarroako Genero Berdintasunaren Indizea aldizka eguneratzea. | - NASTAT<br>- NABI |
| **1.4.4.** Nafarroako toki erakundeetan berdintasun politiken eragina ebaluatzeko kultura ezartzea ahalbidetuko duten tresna homogeneoak prestatzea. | - NABI<br>- Toki erakundeak |

## 2. HE
## ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ZERBITZUPEKO LANGILEEI BERDINTASUNAREN ARLOAN GAITASUN HANDIAGOAK EMATEA



### 0.0.2.1.

Genero Berdintasuna Politika Publikoetan Aplikatzeko Prestakuntza Ibilbidea NFKAn ezartzea, Toki Administrazioaren errealitatera egokitzea eta jarraipena ematea.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **2.1.1.** Genero Berdintasuna Politika Publikoetan Aplikatzeko Prestakuntza Ibilbidea NFKAn ezartzeko estrategia diseinatzea, jarraipena egitea eta eragina ebaluatzea. | - NAPI<br>- NABI |
| **2.1.2.** NFKAko langileen oinarrizko, berariazko eta sektoreko prestakuntza, kasuan kasuko funtzio eta gaitasunen arabera. | - NAPI |
| **2.1.3.** Prestakuntza teoriko-praktiko espezializatu eta jarraitua Nafarroako Gobernuko berdintasun unitateetan aholkularitzaren ardura daukaten langileentzat. | - NABI |
| **2.1.4.** Administrazio Publikoaren Prestakuntza Ibilbidea toki errealitatera egokitzea eta eramatea, baita horren plangintza eta ebaluazio mekanismoak ere. | - NABI<br>- Toki erakundeak |

## 0.0.2.2. Genero ikuspegia txertatzea NFKAtik eskaintzen den berdintasunaren arloko berariazkoa ez den prestakuntzan.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **2.2.1.** Berdintasuna NFKAtik irakasten den prestakuntza osoan zeharkako egitea ahalbidetuko duten irizpideak prestatzea (edukiak, hizkera inklusiboa, irakaskuntza eta ebaluazio metodologia, irakaskuntza ingurua, irakasleak, eta abar). | - NAPI |
| **2.2.2.** Berdintasunaren arloko berariazkoa ez den prestakuntzan arlo honetako edukiak zeinetan gehitu behar diren identifikatzeko lan sistema garatzea. | - NAPI |

## 0.0.2.3. Administraziora iristen diren edo promozioa lortu duten langileei berdintasun arloko ezagutza eskatzea modu mailakatuan txertatzea, haien gaitasunen arabera (orokorrak edo berdintasuneko berariazkoak).

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **2.3.1.** Funtzio publikora sartzeko hautapen prozesu guztietan emakume eta gizonen arteko berdintasunaren araudiari eta administrazio jardueran aplikatzeari buruzko edukiak txertatzea. | - Funtzio Publikoko ZN<br>- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua |
| **2.3.2.** Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun arloko prestakuntza NFKAren lekualdatzeen eta merezimenduen lehiaketa faseetan baloratzeko irizpideak ezartzea. | - Funtzio Publikoko ZN |
| **2.3.3.** Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren arloetan aholkularitza funtzioak izanen dituzten NFKAko promozio eta sarbide postu guztiek aurretiaz arlo horretako prestakuntza izatea ahalbidetuko duten irizpideak gehitzeko bideragarritasuna aztertzea. | - Funtzio Publikoko ZN<br>- Hezkuntza ZN<br>- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua |
| **2.3.4.** Departamentu guztietan langile funtzionarioentzat berdintasunari buruzko prestakuntza ikastaroak prestatzea. Langile funtzionarioek parte hartzeko pizgarriak jartzea. | - Funtzio Publikoko ZN<br>- Hezkuntza ZN<br>- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua |

# 3. HE
# ADMINISTRAZIOEN BERDINTASUN POLITIKEK BERDINTASUNEAN ERAGIN POSITIBOA IZATEKO MEKANISMOAK GARATZEN SEGITZEA

**0.0.3.1.**

Genero ikuspegia txertatzea Administrazioak ohiko jardunean erabiltzen duen informazioa biltzean, tratatzean eta hedatzean (estatistikak, azterketak, memoriak, planak, eta abar).

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **3.1.1.** Nafarroako Gobernuko departamentu guztien estatistika eragiketetan sexu aldagaia sistematikoki gehitzea. | - NASTAT |
| **3.1.2.** Foru eta toki administrazioen inprimaki ofizial, administrazio erregistro eta datu baseetan sexu aldagaia sistematikoki txertatzea, betiere pertsonei buruzkoak direnean. | - Zuzendaritza guztiak<br>- Toki erakundeak |
| **3.1.3.** Nafarroako Gobernuaren oinarrizko adierazleen genero analisia eta gai desberdinetan emakumeen eta gizonen egoeren berri emanen duten adierazle berriak gehitzea, aintzat hartuz ikuspegi intersekzionala. | - NASTAT<br>- NABI |
| **3.1.4.** Sexuaren arabera banatutako datuak eta genero adierazleak sistematikoki txertatzea azterketetan, memorietan eta toki eta foru administrazioen planetan. | - Zuzendaritza guztiak<br>- Toki erakundeak |
| **3.1.5.** Nafarroako Gobernuko departamentuek sexuen arabera banatutako datuen genero analisia egitea erraztuko duten irizpideak prestatzea, eta politika eta proiektu estrategikoetara transferitzea. | - NABI |
| **3.1.6.** Esparru guztietan emakumeen eta gizonen egoera eta posizioa ezagutzea ahalbidetuko duten azterketak egitea, bereziki genero desberdintasunak areagotzen diren kasuetan. | - Zuzendaritza guztiak |

## 0.0.3.2. Tresnak sortzea genero ikuspegia kontratazioetan eta laguntza publikoetan txertatzeko, jarraipena egiteko eta eragina ebaluatzeko, kontratazioen eta laguntza publikoen foru legeditik abiatuz.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **3.2.1.** Komunikazio estrategia bat diseinatzea Nafarroako administrazio publikoek eta erakundeen sektore publikoarekin harremana daukaten hirugarren entitateek aintzatetsi dezaten genero ikuspegia kontratuetan eta laguntza publikoetan gehitzeak berdintasunerako dakarren aukeraren balioa. | - NABI |
| **3.2.2.** NFKA osoak genero ikuspegia kontratazioan eta laguntza publikoetan txertatzeko jarraibideak garatzea. | - Aurrekontuen, Ondarearen eta Politika Ekonomikoaren ZN<br>- NABI |
| **3.2.3.** NFKAk genero ikuspegia kontratazioan eta laguntza publikoetan txertatzeko hartutako neurrien betetzearen jarraipena egin eta eragina ebaluatzeko sistema bat abian jartzea. | - Aurrekontuen, Ondarearen eta Politika Ekonomikoaren ZN<br>- NABI |
| **3.2.4.** Irizpide komunak ezartzea betearazpeneko baldintza bereziak txertatzeko Nafarroako administrazio publikoek kontratatutako lanetan, emakumeen enplegagarritasuna sustatzeko. | - Aurrekontuen, Ondarearen eta Politika Ekonomikoaren ZN<br>- NL-NEZ<br>- Toki erakundeak |
| **3.2.5.** Nafarroako toki erakundeek berdintasuneko klausulak kontratu eta laguntza publikoetan modu homogeneoan txertatzea erraztuko duen lan metodologia ezartzea, baita jarraipena egin eta ebaluatzea ere. | - NABI<br>- Toki erakundeak |

## 0.0.3.3. Administrazioaren komunikazio, publizitate eta kontu emateko politika berdintasunarekin lerrokatzea.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **3.3.1.** Aztertzea Nafarroako Gobernuko departamentu bakoitzak zein mailatan gehitu duen komunikazio inklusibo eta ez-sexista dokumentuetan, formularioetan, inprimakietan edo euskarrietan eta berdintasunean egindako ekarpena ikusgarri jartzen duen memorietan, webguneetan eta herritarrekin komunikatzeko beste kanal batzuetan. | - Departamentu guztiak<br>- NABI |

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
| --- | --- |
| **3.3.2.** Behatoki bat sortzea; behatoki horri esker, administrazio publikoek berdintasuna komunikazioan zeharkakotasunez jasotzeari jarraipena egiten ahalko zaio, genero ikuspegia komunikazio instituzionalean txertatzea erraztuko duten gomendioak eginez. | - NABI |
| **3.3.3.** NFK-ko administrazio publikoen mendeko entitate eta organoen eta lanpostuen izenak berrikustea eta aldatzea, hizkera ez-sexista erabil dezaten. | - Funtzio Publikoko ZN |
| **3.3.4.** Azterketa, lanbide eta jarduera publikoei lotutako genero estereotipoak desmuntatzeko lagungarriak diren kanpaina instituzionalak abian jartzea. | - NABI<br>- Toki erakundeak |
| **3.3.5.** Administrazio publikoekiko administrazio harremana duten enpresa eta erakundeek hizkera, mezu edo irudi androzentrikoak eta sexistak ez erabiltzea ahalbidetuko duten jarraibideak prestatzea. | - NABI |

## 0.0.3.4. Genero ikuspegia toki eta foru administrazioen araudi, plan, programa eta jarduketa estrategikoetan txertatzen sakontzea.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
| --- | --- |
| **3.4.1.** Genero eraginaren txostenak prestatzeko NFKAren lan prozedura ezartzea eta hedatzea, baita edukiak ere, eta gako eragileen parte hartzea, arautze berritik abiatuz. | - Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko ZN |
| **3.4.2.** Lan eskaintza publikoen genero eraginaren txostenak prestatzea. | - Funtzio Publikoko ZN<br>- Toki erakundeak<br>- Hezkuntza ZN<br>- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua |
| **3.4.3.** Nafarroako toki erakundeen abiapuntuko egoeraren analisia, ordenantzetan genero eraginaren txostenak egiteko. | - NABI<br>- Toki erakundeak |
| **3.4.4.** Toki erakundeei, berdintasun politikak bultzatzen egindako ibilbidea abiapuntutzat hartuz, aholkularitza ematea ahalbidetuko duen metodologia prestatzea, ordenantzen genero eraginaren txostenak prestatzeko moduari dagokionez, eta NFK osoan prozesu horren jarraipena egitea erraztuko duena. | - NABI<br>- Toki erakundeak |

## 0.0.3.5. Genero ikuspegia daukaten aurrekontu plangintzako prozesuak garatzen eta finkatzen jarraitzea.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **3.5.1.** Nafarroako Aurrekontu Orokorretan integratuko diren aurrekontu programen memorietan gehitzea aurrekontuak emakume eta gizonengan izanen duen eragin desberdina aintzat hartuko duten genero adierazleak eta jarduketak. | - Aurrekontuen, Ondarearen eta Politika Ekonomikoaren ZN<br>- NABI |
| **3.5.2.** Nafarroako Gobernuko departamentu eta organismo autonomoen aurrekontu programen memorietan gehitutako berdintasun helburuen betetze maila aztertzea. | - Aurrekontuen, Ondarearen eta Politika Ekonomikoaren ZN<br>- NABI |
| **3.5.3.** Nafarroako Aurrekontu Orokorren foru legeen aurreproiektuen genero eraginaren txostenak ematea. | - Aurrekontuen, Ondarearen eta Politika Ekonomikoaren ZN<br>- NABI |
| **3.5.4.** Genero ikuspegia Toki Administrazioaren aurrekontu politikan integratzeko metodologia prestatzea. | - Toki erakundeak<br>- NABI |

## 0.0.3.6. Pertsonen kudeaketa politikan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioa aintzat hartzea.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **3.6.1.** NFKAren Langileen arteko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana egitea eta ebaluatzea, araudi aplikagarrian ezarritako betekizunetatik abiatuz. | - Funtzio Publikoko ZN<br>- NABI |
| **3.6.2.** Administrazio esparruen berezitasunak aintzat hartuko dituzten berdintasuneko neurri espezifikoak diseinatzea eta ezartzea, esaterako irakasleak, osasun langileak, ikertzaileak, foru polizia, suhiltzaileen zerbitzua. | - Funtzio Publikoko ZN<br>- Hezkuntza ZN<br>- Lanbide Heziketaren ZN<br>- Osasun ZN<br>- Barne ZN<br>- Ingurumen ZN |

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **3.6.3.** Aldizka postuen analisia genero ikuspegiarekin egitea eta emakumeen eta gizonen arteko soldata desberdintasunak kontrolatzeko mekanismoak ezartzea Foru Administrazioan. | - Funtzio Publikoko ZN<br>- Toki erakundeak |
| **3.6.4.** Toki erakundeetako langileei zuzendutako berdintasun planak diseinatu eta ebaluatzea, erreferentziazko araudia aintzat hartuz. | - Funtzio Publikoko ZN |
| **3.6.5.** Toki eta foru administrazioetan sexu jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokoloak prestatzea. | - Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua<br>- Toki erakundeak |
| **3.6.6.** Plazen % 2 emakumeen kontrako indarkeriaren biktima diren emakumeei erreserbatzeko moduaz aholkatuko duten jarraibideak prestatzea, hautapen prozesuak gainditzen badituzte eta izaera hori egiaztatzen badute foru eta toki administrazioetan. | - Funtzio Publikoko ZN<br>- Toki erakundeak |
| **3.6.7.** Enplegu publikoan sartzeko, hornitzeko eta promozionatzeko hautapen prozesuetan berdinketa hausteko emakumeen aldeko klausula bat gehitzea, emakumeak ez badaude behar adina ordezkatuta. | - Funtzio Publikoko ZN<br>- Toki erakundeak |

## 0.0.3.7. Emakume eta gizonen ordezkaritza orekatuaren printzipioa bermatzeko irizpideak administrazio publiko guztietara hedatzea ahalbidetuko duten tresnak garatzea.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **3.7.1.** NFKAren jarraibideak garatzea emakumeen eta gizonen arteko ordezkaritza orekatuaren printzipioa NFKAren kide anitzeko eta/edo zuzendaritza organoen pertsona titularrak izendatzean txertatzea (kide anitzeko organoak, sariak, aitorpenak eta bekak emateko epaimahaiak, baita langileak aukeratzeko organo eta epaimahaietan ere). | - Funtzio Publikoko ZN |
| **3.7.2.** Emakumeen eta gizonen arteko ordezkaritza orekatuaren printzipioa administrazio publiko guztietan txertatzeko neurriak sustatzea, bereziki zuzendaritza eta erabakitze organoetan, esparru sozial, politiko, ekonomiko eta hezkuntza, osasun, kultura eta kirol esparruetan. | - Zuzendaritza guztiak<br>- Toki erakundeak |

## 0.0.3.8. Berdintasunari ekarpena egitea administrazioen plangintza multzotik.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **3.8.1.** Nafarroako Gobernuko departamentuen politikak hala eskatzen duenean, berdintasuneko plan sektorialak egitea. Bestalde, departamentuetako berdintasun unitateek departamentu plana eginen dute, Plan Estrategiko honetan ezarritako berdintasun helburuak lortzeko departamentuetan garatu beharreko neurri eta ekintzei dagokienez. | - Zuzendaritza guztiak |
| **3.8.2.** Foru Administrazioaren plangintzaren faseetan genero ikuspegia txertatzeko irizpide homogeneoak ezartzea. | - NABI |
| **3.8.3.** Nafarroako toki erakundeetan berdintasun politika planifikatu, kudeatu eta ebaluatzeko ibilbidea eguneratzea. | - NABI<br>- Toki erakundeak |
| **3.8.4.** Nafarroako gobernu kontseiluetan eta zuzendaritza postuetan ordezkaritza orekatuaren printzipioa bermatzeko nahitaez bete beharreko irizpideak ezartzea. Betetzen ez bada, kasuan kasuko departamentuko Berdintasun Unitatearen txosten baten bidez justifikatu beharko da. Ordezkaritza orekatuko printzipioa betetzetik salbuetsita egonen dira emakumeek pairatu duten eta pairatzen duten diskriminazio historikoa ikusarazi eta gainditzea helburutzat duten erakunde espazioak. | - Zuzendaritza guztiak |

# 4. HE
# BERDINTASUNERAKO ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA, LANKIDETZA ETA PARTE HARTZEA SUSTATZEA



## 0.0.4.1. Administrazioetan berdintasunerako koordinazio tresnak eta espazioak finkatzea.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **4.1.1.** NFKAn berdintasunaren aldeko koordinaziorako departamentuarteko eta departamentu barruko egiturak garatzea eta/edo finkatzea. | - Zuzendaritza guztiak<br>- NABI |

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **4.1.2.** Berdintasuneko zerbitzuak edo arloak dituzten toki erakundeetan berdintasunerako arloen arteko koordinazio egiturak sortzea eta/edo garatzea. | - Toki erakundeak |

## 0.0.4.2. Berdintasunerako erakundearteko lankidetza eta koordinazioa indartzea.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **4.2.1.** Nafarroan ditugun indarkeria matxistaren kontrako eta berdintasunaren aldeko erakundearteko koordinazio espazioak garatzea eta finkatzea. | - NABI<br>- Toki erakundeak |
| **4.2.2.** Berdintasunerako foru eta toki politika koordinatzeko egitura sortzea eta abian jartzea. | - Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren ZN<br>- NABI<br>- Toki erakundeak |
| **4.2.3.** Estatu mailako berdintasunerako erakundeen lankidetzarako espazioetan parte hartzea. | - NABI |
| **4.2.4.** Berdintasunerako nazioarteko lankidetza espazioetan parte hartzea. | - Kanpo Ekintzarako ZN<br>- NABI |

## 0.0.4.3. Gizarte zibilaren parte hartzea eta eragina handitzea, bereziki emakumeen mugimenduena eta mugimendu feministena, toki eta foru administrazioen berdintasunerako politikak garatzean.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **4.3.1.** Nafarroako Berdintasunerako Kontseiluarekiko elkarrizketa indartzea eta funtzioak garatzean laguntzea. | - NABI |
| **4.3.2.** Nafarroako Berdintasunerako Kontseilua Nafarroako emakumeen elkarteetan eta/edo elkarte feministetan hedatzea eta espazio horretan parte hartzea sustatzea. | - NABI |
| **4.3.3.** Toki erakundeetako berdintasun kontseilu eta batzordeen elkarrekintzaren egoera eta ezaugarriak aztertzea eta espazio | - NABI<br>- Toki erakundeak |

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **4.3.4.** Emakumeen elkarteek eta/edo elkarte feministek toki eta foru politiketan duten eragina handiagoa izatea laguntzea, prestakuntza eta aholkularitza espezializatuaren bitartez. | - NABI<br>- Toki erakundeak |

## 0.0.4.4. Emakumeek, duten aniztasunean, politika publikoak ezagutzea, parte hartzea eta horietan eragina izatea sustatzea, Gobernu Irekiaren eta gardentasunerako eta parte hartze demokratikorako beste tresna batzuen bitartez.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **4.4.1.** NFKAren gardentasun mekanismoak emakumeen beharrizanetara, emakumeen gaitasun teknologikoetara eta parte hartzeko emakumeen forma eta denboretara egokitzea. | - Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko ZN |
| **4.4.2.** Berdintasun arloko erakunde helburuen betetzeari eta eraginari buruzko aldizkako informazioa, barne zein kanpokoa. | - Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako ZN<br>- NABI<br>- Toki erakundeak<br>- Funtzio Publikoa |
| **4.4.3.** Berdintasun politikei buruzko informazioa pertsona guztiei irisgarriago egiteko ekimenak abian jartzea, baita emakumeen (aniztasunean) parte hartzearen emaitza ere, hobetze aldera. | - Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko ZN<br>- NABI |

## 0.0.4.5. 17/2019 Foru Legearen eta berdintasunari buruzko araudi osoaren garapena kontrolatzea.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **4.5.1.** Plana abian jartzen den lehen seihilekoan araudi bat prestatzea, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legeak ezarritako zehapen araubidea gauzatu ahal izateko behar diren prozedurak eta baliabide teknikoak eta giza baliabideak ezartzeko. | - NABI |
| **4.5.2.** Nafarroako Berdintasunerako Institutuko (NABI) zuzendari kudeatzaileak eta kontseilariak arau hausteengatik kasuan kasuko zehapenak ezarri ahal izateko behar diren tresnak sortu eta abian jartzea. | - NABI |

# II. ILDO ESTRATEGIK

## GENERO BERDINTASUNA DUEN EREDU SOZIOEKONOMIKORANTZ URRATSAK EGITEA

# II. ILDOAREN DESKRIBAPENA

Ildo honen bitartez, Nafarroako garapen sozial eta ekonomikoko prozesua jasangarria eta berdintasunekoa izatea lortu nahi da, hau da, esparru horietan lehendik baziren eta COVID-19aren pandemiak sortutako krisi globalaren ondorioz (ekonomikoa, soziala, zaintzarena eta osasun arlokoa) areagotu diren genero arrakalak murriztea.

Iturri guztiek egiaztatu dutenez, krisi honek pertsona guztiei erasateaz gain beste krisi batzuk ere agerian jarri ditu, esaterako zaintza lanen krisia. Horrez gain, emakumeentzat osasun izaerako ondorio larriak izan ditu, emakumeek gaixotasunarekiko izan duten esposizioa handiagoa izan baita, pandemiari erantzuteko lehen lerroan egon direlako. Krisiari aurre egiteko, emakumeek, oro har, lan zama handiagoa izan dute eta egoera honetatik bizirik atera dira, pobreago diruz (emakumeen eta gizonen arteko pobrezia arrakalaren maila globala areagotu egin da) zein denboraz, txirotasunaren ikuspegi multidimentsional batetik begiratuta.

Hona hemen iturri ofizialen arabera egoera hori ikusarazten laguntzen ahal duten zenbait datu:

- **Lanaldi partzialeko enplegua:** 2020an, Nafarroako lanaldi partzialeko enpleguen % 78,90 emakumeenak izan ziren. Lanaldi partzialeko kontratazioetan genero arrakalak ez du aldaketa handirik izan azken urteetan. Emakumeen lanaldi partzialeko kontratazioen ehunekoak beti izan dira % 25etik gorakoak; gizonen kasuan, berriz, adierazle hori % 5 ingurukoa izan da.

- **Generoaren ondoriozko soldata arrakala:** Emakumeen eta gizonen arteko soldata desberdintasuna, 2018an eta urteko guztirako batez besteko irabazia erreferentzia gisa hartuz, % 23,20n jarri zen. NFKn dugun arrakala handia azaltzeko aipa dezakegu, partzialki, industrializazio maila eta nekazaritza jarduera handiak direla (biak oso maskulinizatuak), eta zerbitzuen sektoreko jarduera askok baino soldata askoz handiagoak dituzte, bereziki zaintza zerbitzuenak baino, non batez ere emakumeek egiten baituten lan.

- **Eskubide sozialak:** 2019an, Errenta Bermatuko titularren % 58,56 emakumeak izan ziren Nafarroan.

- **Etxeko langileak:** Nafarroan etxeko langileen sistema berezian afiliatutako pertsonen % 95 baino gehiago emakumeak dira.

- **Zaintzarako eszedentziak:** Nafarroan seme-alabak zaintzeko eszedentzien % 90,38 emakumeek hartu zituzten 2019an, COVID-19aren pandemiaren aurretik.

- **I+G:** 2020an I+G arloan ikertzen ari ziren emakumeak Nafarroan % 39,36 izan ziren.

- **STEM ikasketetan genero alborapena:** Nafarroako Unibertsitatea Publikoan, hainbat titulaziotan emakumeak ikasleen % 25 dira (2019-2020 ikasturtea), esaterako hauetan: Ingeniaritza Mekanikoa (% 86,01 gizonak eta % 13,99 emakumeak), Ingeniaritza Elektriko eta Elektronika (% 85,79 gizonak eta % 14,21 emakumeak), Ingeniaritza Informatikoa (% 81,23 gizonak eta % 18,68 emakumeak), Ingeniaritza Industriala (% 80,26 gizonak eta % 19,75 emakumeak), Diseinu Mekanikoko Ingeniaritza (% 77,55 gizonak eta % 22,45 emakumeak) eta Telekomunikazioen Ingeniaritza (% 76,17 gizonak eta % 23,83 emakumeak) .

Testuinguru horretan, ildo honek, hainbat jarduketarekin, nabarmendu nahi du emakumeek bizitza osoan zehar autonomia ekonomikoa behar dutela. Horretarako, pentsio eta soldata arrakalak murriztea nabarmendu du; izan ere, Nafarroan ere pobrezia feminizatu izana aipatutako bi arrazoi horiek azaltzen dute, beste aldagai batzuekin batera. Nafarroan berreskurapenerako inbertsio eta egiturazko erreforma garrantzitsuak ari dira hedatzen, eta horrek ere eragina dauka trantsizio ekologikoko, eraldaketa digitaleko eta erkidego honen lurralde zein gizarte mailako kohesio prozesuetan; hala, une zehatz honetan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna erdiguneko posizioan jarri da, berdintasuna zeharkakoa izan behar baita. Erdigunean, hain zuzen ere, nabarmentzeko emakumeen jarduera tasa eta emakumeentzat enplegu duina sortzea; erdigunean zainketak emateko sistema berrikusi eta indartzeko; erdigunean erkidegoko ezagutzaren erdia atzean utziko ez duen soluzio eta garapen zientifiko eta teknologikoak sustatzeko, eta erdigunean, besteak beste, enpresak ere inplikatzeko berdintasunerantz aurrera egiten eta lankidetza publiko-pribatua bultzatzeko, kontuan izanen duena berdintasunik gabe giza garapena entelekia dela eta izanen dela.

Genero berdintasuna duen eredu sozioekonomikorantz urratsak egite aldera esku hartzeko ildo hau **4 helburu estrategikotan** egituratu da; ondoren, helburu horiek **14 helburu operatibotan** eta **85 ekintzatan** zehaztu dira; 2022-2027 aldian zehar jarriko dira abian.

# 5. HO
# ZAINKETEK BIZITZAREN JASANGARRITASUNERAKO DUTEN BALIOA ONARTZEA

## 0.0.5.1.

Emakumeei zaintzeko agindu patriarkala ezartzen dieten estereotipo eta sinesmenak desmuntatzea, zeinak zainketen banaketa desorekatuan islatzen baitira.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **5.1.1.** Hautatutako eta kalitatezko zaintza lanak izateko beharrizana erakutsiko duten eta erakundeek, enpresek, gizarte zibilak, familiek eta pertsonek zaintzeko duten erantzukizuna nabarmenduko duten ekintzak bultzatzea. | - INAI/NABI<br>- Toki erakundeak |
| **5.1.2.** Komunikazio kanpainak egitea, fokua jarriz zaintza lanek eta bizitzaren etapa jakin batzuetan (haurtzaroa, zahartzaroa, gaixotasun aldiak, dolu emozionala edo zaurgarritasun materialeko aldiak) zaintza areagotzean emandako denboraren balorazio sozialean. | - Errealitate Sozialaren Behatokiaren eta Gizarte Politiken Plangintzaren eta Ebaluazioaren ZN<br>- Hezkuntza ZN<br>- Lanbide Heziketaren ZN<br>- Nafarroako Gazteriaren Institutua<br>- NABI<br>- Toki erakundeak |
| **5.1.3.** Sentsibilizazio ekintzak garatzea, zainketen banaketa ez-erantzukideak gizartean, ekonomian eta osasunean dakarren kostua ikusarazteko, batik bat emakumeentzat eta bereziki desgaitasunen bat duten emakumeentzat. | - Osasun ZN<br>- Errealitate Sozialaren Behatokiaren eta Gizarte Politiken Plangintzaren eta Ebaluazioaren ZN<br>- NABI<br>- Toki erakundeak |

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **5.1.4.** Hezkuntza ekimenak bultzatzea, Hezkidetza Planaren eta Skolae Programaren esparruan, haurrek eta gazteek zaintza lana eta etxeko lana modu positiboan eta beharrezko lan modura uler eta barneratu dezaten, banakako zein talde mailako erantzukizun gisa. | - Hezkuntza ZN<br>- Lanbide Heziketaren ZN<br>- Nafarroako Gazteriaren Institutua |

## 0.0.5.2. Aldizkako informazioa izatea, Nafarroak zainketen arloan zer-nolako jarrera eta bilakaera duen jakin ahal izateko, hainbat ikuspegi kontuan hartuta.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **5.2.1.** Zaintza lanei buruzko kontzeptu esparru homogeneoa prestatzea eta hedatzea, gai horri ekitea orientatze aldera. | - NABI |
| **5.2.2.** Tresna estatistikoak garatzea, Nafarroan zaintza lan ordainduei eta ez-ordainduei eskainitako denborei dagokienez egoera eta bilakaera aldizka jakitea ahalbidetuko dutenak, baita zaintza lanen pertzepzio soziala eta etxean zaintza lanak banatzea nola erabakitzen den jakiteko ere, besteak beste. | - NASTAT |
| **5.2.3.** Nafarroako garapen sozial eta ekonomikoan laguntzeko moduari buruzko ezagutzak emanen dituzten eta zainketen eskari sozialari erantzun publikoa ematea hobetuko duten ikerketak egitea, zainketen sektoreko berrikuntzaren bitartez. | - Osasun ZN<br>- Errealitate Sozialaren Behatokiaren eta Gizarte Politiken Plangintzaren eta Ebaluazioaren ZN<br>- Berrikuntzako ZN<br>- NABI |
| **5.2.4.** Zainketei lotutako prestazioak eta eskubideak parekatzeko bideragarritasuna aztertzea, pertsonen adina edozein dela ere. | - NABI<br>- Toki erakundeak |
| **5.2.5.** Aztertzea zaintzara zuzendutako gastu publikoaren bilakaera eta gaur egungo politika fiskalak zaintza lan ez-ordainduak egiten dituzten pertsonetan duen eragina. | - Nafarroako Foru Ogasunaren ZN<br>- Aurrekontuen, Ondarearen eta Politika Ekonomikoaren ZN<br>- Errealitate Sozialaren Behatokiaren eta Gizarte Politiken Plangintzaren eta Ebaluazioaren ZN |

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **5.2.6.** Zaintzarako baliabide publikoak egungo mapa interaktiboetan gehitzea. | - Errealitate Sozialaren Behatokiaren eta Gizarte Politiken Plangintzaren eta Ebaluazioaren ZN<br>- NABI |

## 0.0.5.3. Administrazioen konpromisoa, lankidetza eta koordinazio instituzionala sustatzea, zainketak eta horien hornikuntza politika publikoen erdigunean jartzeko.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **5.3.1.** Zaintza lanak bete eta banatzeko programa bat prestatzea, zaintzaren aldeko toki itunetan eta foru itun batean zehaztuko dena. | - NABI |
| **5.3.2.** Langile publiko gizonen artean kontziliazio neurri erantzukideak hartzea sustatzea. Gizonek zaintza beren gain hartzeko berariazko neurrien multzoa prestatzea. | - Funtzio Publikoko ZN<br>- Toki erakundeak |
| **5.3.3.** Administrazioetan urrutiko lana edo telelana kontziliazio neurri gisa zein neurritan erabiltzen den ebaluatzea, eta langile publikoen ibilbide profesionaletan duen eragina. | - Funtzio Publikoko ZN<br>- NABI |
| **5.3.4.** Zaintza arloan politika berritzaile eta eraldatzaileak ezartzera bideratutako proiektuak babestea. | - Errealitate Sozialaren Behatokiaren eta Gizarte Politiken Plangintzaren eta Ebaluazioaren ZN<br>- NABI |
| **5.3.5.** Administrazio publiko, beste eragile sozial eta ekonomiko batzuen eta herritarren artean lankidetza eta hausnarketa espazioak bultzatzea, bizitza jasangarritasunean oinarritutako eredu sozioekonomikorantz joateko. | - NABI |
| **5.3.6.** Zaintza lanen erantzukidetasuna sustatzera bideratutako zerbitzu publikoen existentziari eta lurralde banaketari buruzko analisia eginen da (haur eskolak, eguneko zentroak...) Eta analisi hori oinarritzat hartuz, plangintza proposamen bat eginen da, zerbitzuen banaketan oreka ezartzeko, beharrezkoa izanez gero. | - NABI |

## 0.0.5.4.

Zainketak banatzeko eredua aldatzea sustatzea, pertsona guztiei bizitzarako beharrezkoak diren zainketak emanen dizkien sare instituzional sendo bat garatzea ahalbidetuko duena, eremu horretan lan egiten duten pertsonen enpleguaren kalitatea bermatuta.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
| --- | --- |
| **5.4.1** Zaintza lanen gaiei modu publikoan heltzeari dagokionez, Nafarroan ditugun arrakalak aztertzea (baliabideen estaldura, kalitatea eta sortzen diren beharrizan sozialetara egokitzea, kontratatutako langileen baldintzak eta kudeaketa, boluntario ekintzetan parte hartzea, lurralde oreka, eta abar). | - Osasun ZN<br>- Errealitate Sozialaren Behatokiaren eta Gizarte Politiken Plangintzaren eta Ebaluazioaren ZN<br>- NABI<br>- Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko ZN |
| **5.4.2** Haurrei, pertsona nagusiei eta menpeko pertsonei arreta emateko zerbitzu publikoak modu mailakatuan lerrokatzea zainketen aldeko toki itun eta foru itunetatik eratorritako zaintza eredu berriarekin. | - Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia<br>- Osasun ZN<br>- NABI<br>- Toki erakundeak |
| **5.4.3.** Baliabide publiko berriak egokitzea edo abian jartzea sortzen diren beharrizan sozialei erantzuna emanen dieten pertsonen zaintzarako, aintzat hartuz diskriminazio ugariri aurre egin behar dieten pertsonen errealitatea. | - Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren ZN<br>- Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia<br>- Osasun ZN<br>- Toki erakundeak |
| **5.4.4.** Nafarroako Gobernuaren konpromisoa, zainketen zorro publikoa handitzeko, sektore horretan kalitatezko enplegu publikoa eta kalitatezkoa sustatzeko, zaintzarako espazio komunitarioak sortzea eta zainketei eta zaintza lanak egiteari lotutako zerga, lan eta gizarte politikak hobetzea. Konpromiso hau aurrera eramateko lankidetza proaktiboa toki erakundeekin eta Espainiako Gobernuarekin. | - Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren ZN<br>- Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia<br>- Osasun ZN<br>- Toki erakundeak<br>- NABI |
| **5.4.5.** Etxebizitza, espazio publiko eta garraio jasangarriko eredu berriak sustatzeko egitasmoak garatzea, irisgarritasun unibertsala aintzat hartuko dutenak eta pertsona guztien autonomia eta zaintza erraztuko dutenak. | - Garraio eta Mugikortasun Jasangarriaren ZN<br>- Lurralde Antolamenduko ZN<br>- Toki erakundeak |

# 6. HE
# EMAKUMEEN POBREZIA MURRIZTEA NAFARROAN

**0.0.6.1.** Nafarroako errealitate sozial eta ekonomikoari buruzko aldizkako azterketan pobreziaren feminizazioaren dimentsioa (komunitateko emakumeek pobrezia pairatzeko duten arrisku handiagoa) eta horren kausak barne hartzea.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **6.1.1.** Eskura dagoen estatistika informazioa handitzea, Nafarroan pobreziaren feminizazioa ikusgarri egiteko. | - NASTAT<br>- Errealitate Sozialaren Behatokiaren eta Politika Publikoen Plangintzaren eta Ebaluazioaren ZN |
| **6.1.2.** Nafarroako Gobernuaren informazioa sistematikoki genero aldetik aztertu eta lantzea, gizarte zerbitzuei eta enpleguari lotutako politika publikoen plangintza eta ebaluazioari dagokionez, baita eraldaketa sozial eta arazo sozialen prozesuak aztertzea ere. | - Errealitate Sozialaren Behatokiaren eta Politika Publikoen Plangintzaren eta Ebaluazioaren ZN |
| **6.1.3.** Nafarroan pobreziari eta desberdintasun sozialei buruzko erakunde informazioa handitzea; hala, pobreziaren feminizazioa berariaz ikertzea eta emaitzak hedatzea. | - Migrazio Politiketako ZN<br>- Errealitate Sozialaren Behatokiaren eta Politika Publikoen Plangintzaren eta Ebaluazioaren ZN |
| **6.1.4.** Pobreziaren feminizazioa murriztea ahalbidetuko duten prestazio eta pizgarri fiskalen bideragarritasuna aztertzea, batez ere errealitate horri aurre egiten dioten emakumeen taldeak aintzat hartuz. | - Aurrekontuen, Ondarearen eta Politika Ekonomikoaren ZN<br>- INAI/NABI |

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **6.1.5.** COVID-19ak, Ukrainan gerraren ondorioek eta behar-beharrezko produktu eta ondasunen prezioen igoerak Nafarroan pobreziaren feminizazioan izan duten eraginaren ebaluazioa. | - Migrazio Politiketako ZN<br>- Errealitate Sozialaren Behatokiaren eta Gizarte Politiken Plangintzaren eta Ebaluazioaren ZN<br>- NABI |
| **6.1.6.** Nafarroan pobreziaren feminizazioari buruz hausnartzeko espazioak antolatzea, eta desagerrarazten lagunduko duten proposamenak identifikatzea. | - Migrazio Politiketako ZN<br>- Errealitate Sozialaren Behatokiaren eta Gizarte Politiken Plangintzaren eta Ebaluazioaren ZN<br>- NABI |

## 0.0.6.2. Nafarroan emakumeen eta gizonen arteko soldata eta pentsio arrakalak murriztea.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **6.2.1.** Erakunde estrategia bat prestatzea eta abian jartzea, Nafarroan soldata eta pentsioen arrakala murrizteko, horretarako berariazko neurriekin. | - Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren ZN<br>- Aurrekontuen, Ondarearen eta Politika Ekonomikoaren ZN<br>- Industriaren, Energiaren eta S3 Proiektu Estrategikoen ZN<br>- Errealitate Sozialaren Behatokiaren eta Gizarte Politiken Plangintzaren eta Ebaluazioaren ZN<br>- Funtzio Publikoko ZN<br>- NABI |

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **6.2.2.** NFKn emakumeen lanaldi partzialen eta denborazkotasun tasa murrizteko politika sozial eta ekonomikoak bultzatzea. | - Errealitate Sozialaren Behatokiaren eta Gizarte Politiken Plangintzaren eta Ebaluazioaren ZN<br>- Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren ZN<br>- NL-NEZ |
| **6.2.3.** Indarrean dauden enplegu, ekonomia sozial eta langile autonomoen planetan zeharkako neurriak eta berariazko neurriak txertatzea, ekonomiaren esparru guztietan emakumeen enplegagarritasuna handitzeko eta enplegu aukera handiagoak sortzeko, aintzat hartuz emakume gazteenak, langabezian denbora luzea daramaten langabetuak eta/edo aurretik enplegurik ez zutenak, ikasketa maila baxua dutena, desgaitasuna duten emakumeak eta Europar Batasunetik kanpoko herritartasuna dutenak. | - Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren ZN<br>- NL-NEZ |
| **6.2.4.** Nafarroako babes sozialeko politika indartzea, alarguntza pentsio edo erretiro pentsio txikiak (kontributiboak zein ez) jasotzen dituzten pertsonei zuzendutako neurri fiskalen bitartez. | - Nafarroako Foru Ogasunaren ZN<br>- Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren ZN |
| **6.2.5.** Ezkutuko ekonomian egiten diren lanak erregularizatzeko neurriak sustatzea, bereziki zaintza eta etxeko lanak. | - Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren ZN<br>- NL-NEZ<br>- NABI |

## 0.0.6.3.

**Ahulezia handiagoa izateko joera duten emakume taldeei (guraso bakar diren amak, desgaitasuna duten emakumeak, genero indarkeriaren biktimak, iraupen luzeko edo oso luzeko langabeak, eta abar) zuzendutako politika sozialak eta ekonomikoak indartzea eta horien eragina ebaluatzea.**

| EKINTZAK | RESPONSABLE |
|---|---|
| **6.3.1.** Enplegurako politika aktiboak garatzea, ahulezia handiagoari aurre egin behar dioten emakumeak kualifikatu, akreditazio profesionala lortu, laneratu eta enpleguan mantentzeko, Nafarroako landa eremuaren ezaugarriak eta ekonomian hazten ari diren sektoreak aintzat hartuz. | - NL-NEZ |

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **6.3.2.** Lan merkatuan laneko segregazioa murriztu eta sektore feminizatuenak duinago izatea ekarriko duten programak bultzatzea. | - Hezkuntza ZN<br>- Lanbide Heziketaren ZN<br>- NL-NEZ |
| **6.3.3.** Zaintza lanen sektorea duin egin eta langileak kolektibo profesional modura ahalduntzen lagunduko duten egitasmoak garatzea. | - Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren ZN<br>- NL-NEZ<br>- NABI |
| **6.3.4.** Lan merkatuan sartu eta bertan mantentzeko zailtasun handienak dituzten emakumeentzat enplegu babestua sortzea. | - Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren ZN |
| **6.3.5.** Enplegurako prestakuntza programetan kontziliazio neurriak txertatzea, ahulezia handieneko egoeretan dauden emakumeen egoerara egokituta. | - NL-NEZ |
| **6.3.6.** Diskriminazio ugariri aurre egin behar dieten emakumeak enplegu duinekin kontratatzen dituzten enpresei pizgarriak ematea indartzea. | - Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren ZN<br>- NL-NEZ |
| **6.3.7.** Egoera ekonomikoa eta administratiboa oztopo ez izatea erraztuko duten neurriak sustatzea, emakumeek Nafarroako Foru Komunitatean zaintzarako dauden baliabide publikoetara sarbidea izateko. | - Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren ZN<br>- Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia<br>- Toki erakundeak |
| **6.3.8.** Araudia, politika fiskala, baliabideak eta edozein pizgarri publiko egokitzea, aita bakarreko edo ama bakarreko familien berezitasunak modu sistematikoan aintzat hartzeko; hala, ez dira diskriminatuko ez etxe horiei eusten dien pertsona nagusia, ez adingabeak kalitatezko zaintza lanak eta babes sozial egokia edukitzeko eskubidean. | - Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia<br>- Nafarroako Foru<br>- Toki erakundeak |
| **6.3.9.** Etxebizitza eskaintza areagotzea eta zabaltzea, baita ahulezia handieneko egoeran dauden emakumeentzat etxebizitzak birgaitzeko eta alokatzeko eta salerosketarako dirulaguntzak eta laguntzak ere, azkar eta malgutasunez ebaztea sustatuz, itxaron zerrendarik gabe. | - Etxebizitza ZN<br>- Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren ZN<br>- Toki erakundeak |

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **6.3.10.** Neurriak garatzea emakume zaurkorrenen errealitatea aintzat hartzeko Nafarroan pobrezia energetikoa aztertu eta horri heltzean, gas eta elektrizitatearen oinarrizko hornidurak bermatuz hala eskatzen duten egoeretan. | - Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren ZN<br>- Industriaren, Energiaren eta S3 Proiektu Estrategikoen ZN |
| **6.3.11.** Garapenerako lankidetzako eta ekintza humanitarioko proiektuei laguntza ematea, pobrezia desagerraraztea genero ikuspegi intersekzionalarekin lantzea eta emakumeen ahalduntzea | - Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren ZN |

# 7. HE
# NAFARROAKO ENPRESA ETA ERAKUNDEETAN BERDINTASUNAREN ALDEKO KONPROMISOA SUSTATZEA



**0.0.7.1.** Nafarroako enpresei eta erakundeei berdintasuna beren kudeaketan txertatzeak zer onura eta errentagarritasun dakarzkien identifikatzea ahalbidetuko dien komunikazio politika garatzea.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **7.1.1.** Enpleguan emakumeek eta gizonek duten egoerari buruzko aldizkako informazioa, baita alderdi horretako genero arrakala nagusiei buruzkoa ere. | - Errealitate Sozialaren Behatokiaren eta Gizarte Politiken Plangintzaren eta Ebaluazioaren ZN |
| **7.1.2.** Sentsibilizazio ekintzak garatzea, enpresetan eta erakundeetan berdintasuna kalitatezko faktore gisa aitortzeko eta enpresetarako berdintasunak dakarren errentagarritasun sozial eta ekonomikoaren berri emanen dutenak. | - Empresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren ZN<br>- NABI |

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **7.1.3.** Etengabeko hobekuntzaren, kalitatearen kudeaketaren eta bikaintasunaren bilaketaren parte gisa berdintasuna sustatzen ibilbide desberdinak dituzten enpresen eta elkarteen arteko truke eta ikaskuntza espazioak sustatzea. | - Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren ZN |
| **7.1.4.** Informazio eguneratua Nafarroako enpresa eta elkarteei, berdintasun arloan dituzten betebeharrei eta langile gizonek kontziliazio neurriak hartzea sustatzeko duten ardurari dagokienez. | - Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren ZN<br>- NABI |
| **7.1.5.** Komunikazio ekintzak egitea, posible eginen dutenak enpresek ulertzea eta identifikatzea soldata gardentasuneko neurrien, genero analisia lanpostuen balorazioan txertatzearen eta generoan ondoriozko soldata arrakala ezabatzearen onurak. | - Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren ZN<br>- Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua |
| **7.1.6.** Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa bete dadin arduratuko da, Nafarroako enpresek ordainsarien erregistroak sexuen arabera banatuta argitara ditzaten. Betetze horren balorazioa aldizka eginen du. | - Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren ZN |

## 0.0.7.2. Genero berdintasuna enpresetan eta erakundeetan sustatzeko Nafarroako Gobernuaren estrategia erreferentziazko araudiaren eta kudeaketa eredu aurreratuaren ildoan jartzea.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **7.2.1.** Babesa eta aholkularitza ematea kudeaketa prozesuetan eta erakundea eraldatzeko prozesuetan berdintasuna txertatzen hasi edo jarraitu nahi duten Nafarroako enpresa eta elkarteei, berdintasun diagnostiko eta planen bitartez. | - Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren ZN<br>- NABI |
| **7.2.2.** Nafarroako Gobernuko metodologiak eta tresnak eguneratzea eta zabaltzea, berdintasun diagnostiko eta planak egin eta horien jarraipena egiteko, baita enpresa eta erakundeetan sexu jazarpena eta/edo sexuan oinarritutako jazarpena antzeman, horri heldu eta ebaluatzen sakontzeko ere. | - Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren ZN<br>- Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua<br>- NABI |

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
| --- | --- |
| **7.2.3.** Lantaldean 50 pertsona baino gutxiago dituzten enpresetan berdintasun neurriak hartzea sustatzea, erakundeetan etengabeko hobekuntzarako hautu estrategiko modura. | - Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren ZN<br>- NABI |
| 7.2.4. Irizpide homogeneoak ezartzea, kontratuak edo laguntza publikoen deialdiak egiten dituzten toki eta foru zerbitzuek klausula egokiak eta proportzionatuak txertatu ahal izateko oinarrietako eta lizitazioetako exijentzietan, enpresa eta erakundeetan berdintasunerantz aurrera egiteko egindako ekarpena baloratu ahal izateko. | - NABI<br>- Toki erakundeak |
| 7.2.5. Nafarroako erakundeekin zein eragile ekonomikoekin lankidetzan eta kolaborazioan aritzeko mekanismoak finkatzea, genero berdintasuna enpresetan eta elkarteetan gehitzeko. | - Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren ZN<br>- Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua<br>- NABI |
| 7.2.6. Langileen lan osasunean genero ikuspegia txertatzeko lana hobetzea eta finkatzea (prebentzio jarduketak, arriskuen ebaluazioa eta osasuna eta segurtasuna zaintzea). | - Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua |

## 0.0.7.3. Langileen lege ordezkari diren emakumeen, emakumezko zuzendarien eta enpresaburuen kopurua handitzea, bereziki Nafarroan emakumeen presentzia txikiagoa daukaten sektore eta enpresa motetan.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
| --- | --- |
| **7.3.1.** Emakumeek langileen lege ordezkari, zuzendari eta enpresaburu gisa duten presentziaren berri izatea ahalbidetuko duen informazio eguneratua garatzea, baita postu horietara iritsi eta bertan mantentzean eragina duten faktoreen berri ere. | - Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren ZN<br>- NABI |
| 7.3.2. Emakumeen enpresa jarduera sustatzea eta babestea, batez ere gazteen kasuan eta Nafarroako garapen jasangarri eta etorkizunerako gako diren sektoreetan, esaterako zaintza lanen ekonomian edo adimen artifizialean. | - Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren ZN<br>- Industriaren, Energiaren eta S3 Proiektu Estrategikoen ZN<br>- NL-NEZ |

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **7.3.3.** Lankidetza Nafarroako enpresa elkarteekin, gizarte entitateekin, enpresa korporazio publikoekin eta klusterrekin, emakumeek sustatu eta NFKri balio erantsia ematen dioten enpresa proiektuak erakarri, lagundu eta garatzeko. | - Industriaren, Energiaren eta S3 Proiektu Estrategikoen ZN<br>- Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren ZN<br>- NL-NEZ |
| **7.3.4.** Lankidetza elkarte sindikalekin, emakumeek enpresetako edo sektoreko hitzarmenen batzorde negoziatzaileetan eta sindikatuetan parte hartzea sustatzeko. | - Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren ZN |



# 8. HE
# GENERO IKUSPEGIA EZARTZEA BERRESKURATZE ETA ERALDATZE SOZIOEKONOMIKORAKO PROZESUAN NAFARROAN

## 0.0.8.1. Gaur egungo eredu produktiboarekiko alternatiba jasangarriak sortzea, emakumeen talentua gehituz.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **8.1.1.** Komunikazio ekintzak egitea, lagungarriak direnak STEM ikasketei lotutako genero estereotipoak ezabatzen, gizatasunaren arazo handien konponbideak diseinatu eta praktikan jartzeko aplikagarritasun zabala hedatzeko eta esparru horietan emakume profesionalen irudi positiboak erakusteko. | - Hezkuntza ZN<br>- Lanbide Heziketaren ZN<br>- Unibertsitateko ZN<br>- NABI |
| **8.1.2.** Neska eta emakume gazteen interes eta konpromisoa areagotzeko hezkuntza ekimenak abian jartzea, karrera eta diziplina zientifiko, teknologiko eta ingeniaritzei dagokienez, eduki horiek irakasteko eta ikasteko moduak berrikusiz. | - Hezkuntza ZN<br>- Lanbide Heziketaren ZN<br>- Unibertsitateko ZN |

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **8.1.3.** Irakasleen prestakuntza planetan gaitasunak txertatzea irakaskuntza praktikan, eskolen kudeaketan eta orientazio profesionalean neskatxa eta emakumeek STEM ikasketen inguruko interesa izatea sustatzeko, eta mutil eta gizonek zaintzarekin, osasunarekin, hezkuntzarekin lotutako eta gizonek ordezkaritza txikiegia daukaten beste ezagutza adar batzuetako ikasketei dagokienez. | - Hezkuntza ZN<br>- Lanbide Heziketaren ZN |
| **8.1.4.** STEM ezagutza ataletako ikasle eta ikertzaile emakumeentzako pizgarri ekonomikoak areagotzea. | - Unibertsitateko ZN |
| **8.1.5.** Mentoretzako, elkarlaneko ikaskuntzako eta lanbide-aholkularitzako programak bultzatzea, lan merkatuan genero arrakala gehien dituzten esparruetara emakumeak eta gizonak iristea errazteko. | - Hezkuntza ZN<br>- Lanbide Heziketaren ZN<br>- Unibertsitateko ZN<br>- Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren ZN |
| **8.1.6.** Administrazioen arteko kolaborazioa, unibertsitate eta hezkuntza esparrua, enpresa sektorea eta gizarte erakundeak barne, Nafarroako gizarteak gainditu behar dituen erronka sozial, ekonomiko eta ingurumeneko erronkei erantzuna ematean emakumeak gehitzeko, diziplina anitzeko begiradatik. | - Hezkuntza ZN<br>- Lanbide Heziketaren ZN<br>- Unibertsitateko ZN<br>- Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren ZN<br>- NABI |
| **8.1.7.** Lan plan bat diseinatu eta abian jartzea, genero arrakala murrizteko bankuen enpresa finantzaketara sarbidea izaterakoan. | - Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren ZN<br>- NABI |

## 0.0.8.2. Genero ikuspegia trantsizio ekologikoko prozesuetan txertatzea.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **8.2.1.** Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna zeharkako elementu bihurtzea Trantsizio Ekologikorako Navarra Green Estrategiaren jarduketetan eta jarraipenean. | - Ingurumen ZN |

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **8.2.2.** Emakumeek eta emakumeen sareek ingurunea zaintzeko iraganean zein gaur egun egindako ekarpenen balioa nabarmenduko duten espazioak bultzatzea. | - Ingurumen ZN |
| **8.2.3.** Emakumeek trantsizio ekologikoko prozesuak landuko dituzten espazio eta organo instituzionaletan parte hartzea sustatzea. | - Ingurumen ZN |
| **8.2.4.** Klima aldaketaren aurkako borroka sustatzen duten egitasmoak laguntzea, arlo horretan emakumeen eta emakumeen elkarteen parte hartzearen (boluntarioen jarduna barne) eta lidergo eta ahalduntze handiagoaren bitartez. | - Ingurumen ZN<br>- Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko ZN |
| **8.2.5.** Enplegu “berdeari” lotutako sektoreetan emakumeen enplegagarritasuna hobetzea eta ekintzailetza sustatzea, bereziki emakume gazteen kasuan. | - Landa Garapeneko ZN<br>- NL-NEZ |
| **8.2.6.** Beste autonomia erkidego eta herrialde batzuekin lan sareetan parte hartzea, klima justizia eta garapen jasangarri berdinzaleen lankidetza egitasmoak artikulatzeko. | - Ingurumen ZN<br>- Landa Garapeneko ZN<br>- Industriaren, Energiaren eta S3 Proiektu Estrategikoen ZN<br>- Kanpo Ekintzarako ZN<br>- Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren ZN |

## 0.0.8.3. Eraldaketa digitala tresna erabilgarri bihurtzea emakumeen eta gizonen arteko berdintasun egiazkoa lortzeko.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **8.3.1.** Genero ikuspegia eta ikuspegi intersekzionala txertatzea 2030 Nafarroako Estrategia Digitalaren hedapenean eta jarraipenean. | - Telekomunikazioetako eta Digitalizazioko ZN |
| **8.3.2.** Emakumeak diseinu, ekoizpen eta lidergo teknologikoan ikusgarri eginen dituzten komunikazio ekintzak abian jartzea, eta genero arrakala digitala soilik teknologiak herritarren artean hedatuz ezabatuko dela dioen sinesmena deseginen dutenak. | - Telekomunikazioetako eta Digitalizazioko ZN<br>- NABI |
| **8.3.3.** Emakumeak bizitzan zehar arlo digitalean sartzea erraztuko duten egitasmoak bultzatzea, eta aintzat hartuko dutenak belaunaldien arteko arrakala digitala eta landa eremuko udalerrietan eta husteko arriskua duten inguruneetan Interneteko abiadura handiko konexioa eta banda zabalera sarbidea izateko zailtasunak. | - Telekomunikazioetako eta Digitalizazioko ZN |

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
| --- | --- |
| **8.3.4.** Herritarrek Administrazioarekin duten harremana modernizatu eta digitalizatzeko proposamenei dagokienez emakumeen abiapuntuko egoera aztertzea, kontuan hartuz adina, hezkuntza maila, egoera sozioekonomikoa eta hizkuntza edo komunikazio hizkuntza bezalako aldagaiak. | - Telekomunikazioetako eta Digitalizazioko ZN<br>- Euskarabidea |
| **8.3.5.** Emakumeen gaitasun digitala haurtzarotik handitzeko programak garatzea, ahalduntzea sustatzeko eta enplegagarritasuna handitzeko. | - Telekomunikazioetako eta Digitalizazioko ZN<br>- NL-NEZ<br>- Hezkuntza ZN<br>- Lanbide Heziketaren ZN |
| **8.3.6.** Prozesuak digitalizatzeko proiektuak laguntzea emakumeen enpresetan, sektore teknologikoari lotutako emakumeen enpresak sustatzeko eta emakumeen talentu teknologikoa erakartzeko. | - Telekomunikazioetako eta Digitalizazioko ZN<br>- Landa Garapeneko ZN<br>- Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren ZN |

## 0.0.8.4. Lurraldeari zein gizarteari dagokionez kohesionatutako Nafarroa bultzatzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipiotik abiatuz.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
| --- | --- |
| **8.4.1.** Genero ikuspegia eta ikuspegi intersekzionala txertatzea 2030 Nafarroako Estrategia Digitalaren hedapenean eta jarraipenean. | - Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren ZN<br>- Herri-lanen eta Azpiegituren ZN<br>- Garraio eta Mugikortasun Jasangarriaren ZN<br>- Landa Garapeneko ZN<br>- Nekazaritza eta Abeltzaintza ZN<br>- Ingurumen ZN<br>- NABI |
| **8.4.2.** Nafarroako Landa Eremuko Emakumeen Estatutua prestatzea. | - Landa Garapeneko ZN<br>- Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren ZN<br>- NABI |

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
| --- | --- |
| **8.4.3.** Udalerri txikietan eta landa eremuan bizi diren emakumeen dibertsifikazio, espezializazio eta ekintzailetzako enpresa proiektuak laguntzea, Nafarroako hainbat eremutako demografia beherakadaren prozesuak eta herriak husteko prozesuak lehengoratzeko. | - Landa Garapeneko ZN<br>- Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren ZN<br>- NL-NEZ |
| **8.4.4.** Garraio publikoko sarearen konektagarritasuna hobetzea hiri, hiri periferia eta landa eremuetan. | - Garraio eta Mugikortasun Jasangarriaren ZN<br>- Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren ZN |
| **8.4.5.** Mugikortasun jasangarri, irisgarri eta seguruko egitasmoak sustatzea. | - Garraio eta Mugikortasun Jasangarriaren ZN |
| **8.4.6.** Hirigintza politiketan emakumeen posizio eta egoera desberdina aintzat hartuko dituzten irizpideak txertatzea, espazio publikoak bereganatu, antzeman eta erabiltzeari dagokionez. | - Lurralde Antolamenduko ZN<br>- Herri-lanen eta Azpiegituren ZN |
| **8.4.7.** Irisgarritasun unibertsala sustatzen duten lurralde berrantolaketako eta hirigintzako proiektuak bultzatu eta babestea, eta genero ikuspegia txertatzea pertsona guztien bizi kalitatea bermatuko duten irtenbideekin. | - Lurralde Antolamenduko ZN<br>- Herri-lanen eta Azpiegituren ZN |

# III. ILDO ESTRATEGIKOA

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIARI BUKAERA EMATEA

# III. ILDOAREN DESKRIBAPENA

Emakume izateagatik emakumearen kontra erabiltzen den indarkeria giza eskubideen urraketa larria da eta hura oinarritzen da emakumeen eta gizonen arteko botere-harreman desberdinetan. Harreman horiek egiturazkoak dira eta, gainera, lehentasunezko arazo dira, gizartean zein osasun publikoan. Toki eta foru administrazioek hamarkadak daramatzate horretan esku hartzen.

**Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea** indarrean jarri eta **Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea garatzeko Ekintza Planean** gauzatzeak ekarri du errealitate horri modu publikoan heltzeari bultzada ematea, indarkeria Nafarroako arreta eta berreskurapen sisteman lantzen denetik kalitatean eta estalduran aurrera egin delako. Horrez gain, erantzukizunaren printzipiotik, errealitate horretan esku hartzen duten profesionalak gaitzea eztabaidaezina izateaz gain betekizun bat ere bada arretarako, gizarte zibilean eremu publiko eta pribatuan indarkeria antzemateko eta horren aurka agertzeko sentsibilitate gero eta handiagoa daukagun une honetan.

Bestalde, erakundeen arteko lankidetza mekanismoak pixkanaka indartu dira; **Nafarroako Foru Komunitatean Nafarroan Emakumeen aurkako Indarkeriaren aurrean Koordinatzeko Erakundearteko III. Akordioan** (2017) arautu da. Koordinazioa beste espazio batzuetara ere hedatu da, esaterako **Sexu Esplotaziora bideratutako Emakumeen Salerosketaren aurkako Forora,** eta esparru protokoloak egin dira haren eraginkortasunerako, esaterako **Nafarroan Emakumeen Genitalen Mutilazioari Aurrea Hartzeko eta jokatzeko Protokoloa edota emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean jokatzea koordinatzeko tokiko protokoloak**; hala, erakunde publiko eta eragile sozialen arteko kolaborazioa hobetu egin da esku hartzea homogeneoa delako eta ez delako birbiktimaziorik egin emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpen desberdinen artean.

Oro har, egungo arreta ereduak posible egin du, 2020an pandemiak eta konfinamenduak emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez eragindako inoiz ikusi gabeko testuinguru horretan, dauden baliabideak dimentsionatu eta egokitu ahal izatea, errealitate horri behar den diligentziaz erantzuteko.

Hona hemen Nafarroan emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean esku hartzea ikusgarri egiten duten zenbait datu, iturri ofizialen arabera:

- **2021ean aurkeztutako polizia salaketak:** 1.639 salaketa, eta horietatik 219 sexu indarkeriagatik. Hilean, batez beste, 136,58 salaketa jarri ziren.
- **Informazioa emateko 016 telefono zerbitzua:** 774 dei 2020an (aurreko urtearekin alderatuta % 17,17 gehiago izan ziren).
- **Emakumeen aurkako indarkeriagatik larrialdi kasuetan 112 SOS Navarra telefonora egindako deiak:** 820 dei.
- **Harrera baliabideak (larrialdietako zentroa, harrera etxea eta tutoretzapeko etxebizitzak):** 2020an 106 emakume eta 110 adingabe (52 neska eta 58 mutil) artatu ziren hainbat baliabidetan.

- **Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta Integrala emateko Taldeak** (BAIT): 2020an, Nafarroan dauden lau BAITetan 994 emakume artatu ziren. Emakume horietatik 247k (% 24,85) aholkularitza soila eskatu zuten, eta 747k (% 75,15) pairatutako indarkeriaren erreparaziorako tratamendua jaso zuten. Baliabide publiko honetatik 32 alaba (26 adingabe eta 6 adin nagusikoak) eta 22 seme (18 adingabe eta 4 adin nagusikoak) artatu ziren.

- **Epaitegiak:** 2020an genero indarkeriagatik Nafarroako epaitegietan hasitako edo ingresatutako prozedurak 2.202 izan dira. Prozedurak, oro har, Emakumeen aurkako Indarkeriako Epaitegietan erregistratu ziren, batez ere.

- **Justiziako Gizarte Zerbitzua:** 2020an emakumeen aurkako indarkeria pairatu zuten 310 biktima artatu ziren; programa terapeutikoetan, berriz, 245 erasotzaile tratatu ziren, 203 anbulatorio araubidean eta 42 espetxean.

- **Toki erakundeak:** 2020an 17 udalerrik emakumeen aurkako indarkeria kasuak modu integralean artatzeko berariazko koordinazio protokoloak zituzten.

Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean esku hartzean erakunde publikoek erronka asko dituzte, sentsibilizazioan, prebentzioan eta ikerketan, baita arreta integralean ere. Dena dela, esku hartze horrek bat egin behar du araudiarekin eta kalitatezko nazioarteko estandarrekin. Testuinguru horrek ahalbidetuko du emakumeen aurkako indarkeriaren forma eta adierazpen sotilagoei erantzuna eman ahal izatea, sistema publikotik ematen den arretan ibilbide laburragoa dutenak. Emakumeen kontrako indarkeriari bukaera ematea lortu nahi duen esku hartzeko ildo hau **3 helburu estrategikotan** egituratu da; ondoren, helburu horiek **13 helburu operatibotan** eta **70 ekintzatan** zehaztu dira; 2022-2027 aldian zehar jarriko dira abian.

# 9. HE
## EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAK NAFARROAN DITUEN EZAUGARRIEN GAINEAN SENTSIBILIZATZEA, HAIEI AURREA HARTZEA ETA EZAUGARRI HORIEN EZAGUTZA HANDITZEA

**0.0.9.1.** Emakumeen gutxiagotasunean edo gizartean emakumeek eta gizonek duten betebehar estereotipatuan oinarritutako aurreiritziak, ohiturak eta beste edozein praktika desagerraraztea ahalbidetzen duten jokabide sozialetan aldaketak eragitea

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **9.1.1.** Erakundeen komunikazio ekintzak egitea, eragina badute emakumeen eta gizonen arteko egiturazko desberdintasunen eta emakumeen aurkako indarkeria adierazpen guztien artean, erreferentziazko araudian jasotakoak. | - Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako ZN<br>- Hezkuntza ZN<br>- Lanbide Heziketaren ZN<br>- NABI<br>- Toki erakundeak |
| **9.1.2.** Sentsibilizazio neurriak diseinatu eta abian jartzea, lagungarriak izanen direnak emakumeen aurkako indarkeria azaldu eta normalizatzeko gizartean erabiltzen diren estereotipo eta aurreiritziak desmuntatzeko. | - Hezkuntza ZN<br>- Lanbide Heziketaren ZN<br>- Migrazio Politiketako ZN<br>- Nafarroako Gazteriaren Institutua<br>- NABI |
| **9.1.3.** Gizon eta mutilei maskulinitate hegemonikoko ereduarekin desidentifikatzea eta emakumeei, femeninoari eta berdintasunari balioa ematea ahalbidetuko dien programak bultzatzea. | - Hezkuntza ZN<br>- Lanbide Heziketaren ZN<br>- Justizia ZN<br>- Migrazio Politiketako ZN<br>- Nafarroako Gazteriaren Institutua<br>- NABI |

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
| --- | --- |
| **9.1.4.** Toki eta foru administrazioetako politikek esku hartzeko esparru guztietatik emakumeak eta haien ekarpenak ikusgarri egiteko estrategia bat diseinatu eta ezartzea. | - Hezkuntza ZN<br>- Lanbide Heziketaren ZN<br>- NABI<br>- Toki erakundeak |
| **9.1.5.** Lan espazio bat sortzea NFKAko titulartasuneko edo baliabide publikoekin diruz lagundutako komunikabide eta publizitate agentziekin, hedatuko duten informazioa (programazioa, irudiak eta edukiak) sexista izan ez dadin eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna susta dezan. | - NABI |

## 0.0.9.2. Emakumeen aurkako indarkeriaren forma eta adierazpenen pertzepzio soziala handitzea, batez ere horren argiak ez diren adierazpenen kasuan.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
| --- | --- |
| **9.2.1.** Komunikazio ekintzak garatzea, emakumeen aurkako indarkeria mota guztien gaineko ezagutza eta errefusatze soziala handituko dutenak, bereziki, indarkeria ekonomikoaren kasuan bezala, hala identifikatzen ez diren kasuetan. | - Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako ZN<br>- Hezkuntza ZN<br>- Lanbide Heziketaren ZN<br>- NABI |
| **9.2.2.** Erakundeen kanal eta bideak erabiltzea, herritarrek aski elementu izan ditzaten indarkeria bikarioa, politikako emakumeen aurkako indarkeria, emakumeen aurkako indarkeria instituzionala eta emakumeen aurkako online gorroto diskurtsoa ulertu eta genero analisiaren bidez horien aurka jartzeko. | - Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako ZN<br>- NABI |
| **9.2.3.** Desgaitasunen bat duten neskatxa, nerabe eta emakumeen aurkako indarkeria sexuala ikusaraztea ahalbidetuko duen informazioa areagotzea, esparru pribatuan zein publikoan, baita hura antzemateko eta modu espezializatuan arreta emateko egun ditugun baliabideak areagotzea ere. | - Justizia ZN<br>- Osasun ZN<br>- Barne ZN<br>- Nafarroako Gazteriaren Institutua<br>- Hezkuntza ZN<br>- Lanbide Heziketaren ZN<br>- NABI |

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **9.2.4.** Erakundeen arteko lankidetza indartzea, komunikazio ekintza bateratuak egiteko, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteari lotutako datak oroitzeko. | - NABI<br>- Toki erakundeak |
| **9.2.5.** Emakumeen elkarteek komunitateko eragile aktibo gisa duten betebeharra nabarmenduko duten programak bultzatzea, emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan sentsibilizatu eta prebenitzeko, bereziki landa eremuan. | - NABI<br>- Toki erakundeak |

## 0.0.9.3. Hezkuntza sistematik emakumeen kontrako indarkeria prebenitzea eta emakumeen ahalduntzean neska garaitik laguntzea.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **9.3.1.** Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna modu eraginkorrean txertatzea NFKAko hezkuntza plan eta proiektuen jarraibideetan, bat etorriz Hezkidetza Planean eta Skolae Programan ezarritakoarekin. | - Hezkuntza ZN<br>- Lanbide Heziketaren ZN |
| **9.3.2.** Irakasle guztiei hasierako zein etengabeko prestakuntza ematea berdintasun eta neska, nerabe eta gazteen aurkako indarkeria gaietan, barne hartuz nola saihestu, antzeman eta jokatu indarkeria forma eta adierazpen desberdinen aurrean eta horretarako dauden baliabideak. | - Hezkuntza ZN<br>- Lanbide Heziketaren ZN |
| **9.3.3.** Berdintasuna berariaz eta zeharka txertatzea hezkuntza maila guztietako ikastetxeetako hezkuntza proiektu eta curriculum guztietan. | - Hezkuntza ZN<br>- Lanbide Heziketaren ZN |
| **9.3.4.** Hezkuntza maila guztietan material didaktiko ez-sexistak garatzea, erabiltzea eta hedatzea, harreman pertsonal eta afektibo indarkeriarik gabekoak, libreak, autonomoak eta berdinzaleak sustatzen dituztenak. | - Hezkuntza ZN<br>- Lanbide Heziketaren ZN |
| **9.3.5.** Ikastetxeetan berariazko programak egitea, neskato, neska eta emakume gazteei babesa emateko ahalduntze prozesuetan eta indarkeria antzemateko prozesuetan, baita mutiko, mutil eta gizon gazteentzako berariazko programak ere, praktika eta jokabide ez-sexistak eta indarkeriarik gabekoak garatzen ikas dezaten. | - Hezkuntza ZN<br>- Lanbide Heziketaren ZN |
| **9.3.6.** Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzio eta sentsibilizaziorako hezkuntza esparruan egindako neurrien aldizkako informazioa eta kontu ematea, baita horien eraginari dagokionez ere (Nafarroako Eskola Kontseilua). | - Hezkuntza ZN<br>- Lanbide Heziketaren ZN |

## 0.0.9.4. Indarkeriaren prebentzioa indartzea esparru publiko eta pribatuan, aldagaien arabera ezaugarrietara egokitutako neurrien bitartez (adina, kultur jarduerak, desgaitasuna, eta abar).

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **9.4.1.** Esparru guztietako erakundeen (lana, hezkuntza ez-formala, kirola, aisialdia, eta abar) eta herritarren betebehar proaktibo eta arduratsua indartzea indarkeria matxistaren prebentzioan, esparru publikoan zein pribatuan (enpresa eta gizarte esparrua). | - Zuzendaritza guztiak<br>- NABI |
| **9.4.2.** Fokua emakumeen eta nesken aurkako indarkeria digitala edo ziberindarkeria prebenitzen jarriko duten lan programak egitea. | - Hezkuntza ZN<br>- Lanbide Heziketaren ZN<br>- Telekomunikazioetako eta Digitalizazioko ZN<br>- Nafarroako Gazteriaren Institutua<br>- NABI<br>- Toki erakundeak |
| **9.4.3.** Kirolean emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko programak ezartzea. | - Nafarroako Kirolaren Institutua<br>- Toki erakundeak |
| **9.4.4.** Kirol esparruetan, jai esparruetan eta aisialdi espazioetan emakumeen aurkako indarkeria saihestu eta horretan sentsibilizatzeko protokoloak eta beste tresna batzuk prestatzeari bultzada ematea. | - NABI<br>- Nafarroako Kirolaren Institutua<br>- Toki erakundeak |
| **9.4.5.** Beste diskriminazio batzuei aurre egin behar dieten emakumeen errealitatera egokitutako prebentzio eta sentsibilizazioko prozedura komunak prestatzea, beste diskriminazio horiek haien ahulezia areagotzen badute (emakume nagusiak, emakume gazteak, desgaitasuna duten emakumeak, emakume arrazializatuak eta/edo migratuak, eta abar), Nafarroako toki erakundeetara eramaten ahal badira. | - Migrazio Politiketako ZN<br>- Osasun ZN<br>- Justizia ZN<br>- Hezkuntza ZN<br>- Lanbide Heziketaren ZN<br>- Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren ZN<br>- Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia<br>- Nafarroako Gazteriaren Institutua<br>- NABI<br>- Toki erakundeak |

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **9.4.6.** Lanaren esparrutik sexu jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena saihestu eta sentsibilizatzeko tresnak eguneratu eta hedatzea. | - Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren ZN<br>- Funtzio Publikoko ZN<br>- NABI<br>- Toki erakundeak |

## 0.0.9.5. Emakumeen aurkako indarkeriaren kausak, hedapena eta ondorioak ikertzea indartzea, seme-alabengan eragindako ondorioak barne, genero ikuspegi intersekzionaletik.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **9.5.1.** Unibertsitateekin kolaboratzea, indarkeriaren kausak, ezaugarriak eta diskriminazio ugariri aurre egin behar dieten emakumeengan dituen eragin desberdinak ezagutzen sakonduko duten diagnostiko, ikerlan eta doktorego tesiak egin eta hedatzeko. | - Unibertsitateko ZN<br>- NABI |
| **9.5.2.** Sistema publikoko arreta esparruetatik emakumeen aurkako indarkeriari heltzeko mota desberdinak aztertuko dituzten ikerketak egitea, esparru judiziala barne, birbiktimazio egoerak ikusgarri egin eta prebenitzea ahalbidetuko dutenak. | - Errealitate Sozialaren Behatokiaren eta Gizarte Politiken Plangintzaren eta Ebaluazioaren ZN<br>- Justizia ZN<br>- NABI |
| **9.5.3.** Emakumeen aurkako indarkeriak haurtzaro eta nerabezaroan dituen ezaugarri eta eraginetan fokua jarriko duten ikerkuntzak garatzea (indarkeria sexuala haurtzaroan, emakumeen aurkako indarkeriaren eragina seme-alabengan eta errealitate horren tratamendua arretarako sistema publikotik eta indarkeria bikarioa). | - Errealitate Sozialaren Behatokiaren eta Gizarte Politiken Plangintzaren eta Ebaluazioaren ZN<br>- Nafarroako Gazteriaren Institutua<br>- NABI |
| **9.5.4.** Emakumeen aurkako indarkeriari landa eremuan ematen zaion arretaren kalitatea eta estaldura aztertzea. | - Landa Garapeneko ZN<br>- NABI |
| **9.5.5.** NFKn prostituzioaren, online prostituzioaren eta adingabeek sare horietara duten sarbidearen ezagutzan sakontzea. | - NABI |

## 0.0.9.6.

Emakumeen aurkako indarkeriaren eraginari buruzko aldizkako informazio homogeneoa batzen, tratatzen eta hedatzen sakontzea Nafarroan.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **9.6.1.** Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko estatistika informazioa hobetzea eta aldagai berriak gehitzea, kausa, ondorio, maiztasun eta ezarritako neurrien eraginkortasunean sakontzea ahalbidetuko dutenak. | - Osasun ZN<br>- Justizia ZN<br>- Errealitate Sozialaren Behatokiaren eta Gizarte Politiken Plangintzaren eta EbaluazioarenZN<br>- Hezkuntza ZN<br>- Lanbide Heziketaren ZN<br>- NABI<br>- Toki erakundeak |
| **9.6.2.** Gizarte eta osasun esparruetan erabilitako kasuen informazioa biltzeko eta tratatzeko tresnak garatzea, emakumeen aurkako indarkeria hobeki identifikatu, arreta espezializatua eman eta jarraipena egiteko. | - Osasun ZN<br>- Errealitate Sozialaren Behatokiaren eta Gizarte Politiken Plangintzaren eta Ebaluazioaren ZN<br>- NABI<br>- Toki erakundeak |
| **9.6.3.** Emakumeen aurkako indarkeriaren ezaugarriei eta eraginari buruzko informazio irisgarria aldizka hedatzea Nafarroan. | - NABI<br>- Toki erakundeak |
| **9.6.4.** Emakumeen aurkako indarkeria arloan baliabide eta zerbitzu publikoen mapa eguneratu eta hedatzea, interes talde desberdinei egokitutako informazioaren bitartez (profesionalak, indarkeriatik bizirik atera direnak, gizarte zibila, eta abar). | - NABI |

## 0.0.9.7.

Jarraipena ematea Nafarroan emakumeen aurkako indarkeriari arreta emateko baliabideen ebaluazioari, bizirik atera diren biktimen iritzia gehituz.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **9.7.1.** Jarraipena egitea emakumeen aurkako indarkeriari arreta emateko Nafarroako Gobernuaren baliabideen ebaluazioan identifikatutako hobekuntzak gehitzeko mailari eta eraginari. | - NABI |
| **9.7.2.** Bizirik atera diren biktimen iritzia eta gogobetetzea jakitea ahalbidetuko duten tresnak garatzea, Nafarroako Gobernuaren indarkeriari arreta emateko berariazko baliabideei dagokienez (gogobetetze inkestak eta beste batzuk). | - Justizia ZN<br>- Barne ZN<br>- Errealitate Sozialaren Behatokiaren eta Gizarte Politiken Plangintzaren eta Ebaluazioaren ZN<br>- NABI |
| **9.7.3.** Berariazkoak ez diren Nafarroako Gobernuaren baliabideetatik indarkeriari ematen zaion arretaren ebaluazioak egitea (Familia Elkartzeko Gunea, Egoitza Zentroak, Eguneko Zentroak, Adingabeen Harrera eta Behatze Zentroak, Etxerik gabeko Pertsonentzako Harrera Zentroak). | - Errealitate Sozialaren Behatokiaren eta Gizarte Politiken Plangintzaren eta Ebaluazioaren ZN<br>- NABI |

# 10. HE
# EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURREKO ERANTZUN PUBLIKOA ERREFERENTZIAZKO ARAUDIAREKIN LERROKATZEA



## 0.0.10.1. Emakumeen aurkako indarkeriaren detekzio goiztiarra hobetzea.

| ACCIONES | ARDURADUNA |
|---|---|
| **10.1.1.** Antzemate eta arreta mekanismoak indartzea eta hedatzea, emakumeen mutilazio genitalari, nahitaezko ezkontzei eta sexu esplotazio eta salerosketako biktimei dagokienez. | - Osasun ZN<br>- Hezkuntza ZN<br>- Lanbide Heziketaren ZN<br>- Migrazio Politiketako ZN<br>- Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren ZN<br>- Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia<br>- NABI |

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **10.1.2.** Emakumeen aurkako indarkeria kasuak antzeman eta arreta emateko barne zirkuitu eta prozedurak prestatzea eta jarraipena egitea osasun arretako baliabide eta esparru guztietan (lehen mailako arreta, larrialdiak, arreta espezializatua, ospitaleko arreta, eta abar) eta gizarte zerbitzuetan, haien lana artikulatzeko programa guztiak barne hartuz, eta Nafarroako ikastetxe guztietan. | - Osasun ZN<br>- Hezkuntza ZN<br>- Lanbide Heziketaren ZN<br>- Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren ZN<br>- Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia |
| **10.1.3.** Indarkeriaren detekzio goiztiarreko protokoloak prestatzea, jarraipena egitea eta hobetzea polizia, epaitegi, osasun, gizarte eta enplegu esparruetan, indarkeria psikologikoa eta indarkeria ekonomikoa antzematea nabarmentzen badute. | - Barne ZN<br>- Justizia ZN<br>- NL-NEZ<br>- Osasun ZN<br>- Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren ZN<br>- Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia |
| **10.1.4.** Informazioa eta prestakuntza osasun, gizarte, hezkuntza, polizia eta epaitegietako esparruetako baliabideetako langileei, emakumeen aurkako indarkeria kasuen aurrean detekzio eta esku hartzeko zerbitzu horietan dauden prozedura, tresna eta jarraibideen inguruan, susmo egoerei heltzeko kasuak barne. | - Osasun ZN<br>- Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren ZN<br>- Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia<br>- Hezkuntza ZN<br>- Lanbide Heziketaren ZN<br>- Barne ZN<br>- Justizia ZN |

## 0.0.10.2.

Emakumeen aurkako indarkeriari zuzendutako arreta integraleko sare publikoaren estaldura eta kalitatea hobetzea, aintzat hartuz indarkeriaren agerraldi eta forma desberdinak eta foru eta toki baliabideetan esku hartzea orientatu behar duten printzipioak.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **10.2.1.** Detekzio, arreta, babes eta berreskuratzeko tresnen hobekuntza eta kalitate estandarrak gehitzea sare publikoko baliabide guztietan, bereziki seme-alabei, gaixotasun mentalen bat duten emakumeei eta kontsumoak dituzten emakumeei arreta emateari dagokionez. | - Osasun ZN<br>- Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren ZN<br>- Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia<br>- NABI |
| **10.2.2.** Informazio eta arretako baliabide orokorretatik emakumeei ematen zaien informazioa aldizka itzultzea eta eguneratzea, erabakiak modu autonomoan hartzea sustatuz. | - Osasun ZN<br>- Justizia ZN<br>- Barne ZN<br>- Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren ZN<br>- Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia<br>- NABI |
| **10.2.3.** Etengabeko zaintza lokalizatuko araubidean informazio, asistentzia eta arreta psikologikoko zerbitzua indartzea eta profesionalen eta bizirik atera diren biktimen artean hedatzea. | - Justizia ZN |
| **10.2.4.** Emakumeen aurkako indarkeriatik bizirik ateratako biktimei zuzendutako arreta eta berreskurapen integraleko baliabide espezializatu guztien estaldura eta zuzkidura hobetzea (BAIT), aintzat hartuz lurralde oreka, diskriminazio anitzeko egoerak eta haurren eta nerabeen berreskurapen beharrak, hezkuntza eta psikologia arretaren bitartez. | - Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren ZN |
| **10.2.5.** Aldi baterako ostatu eta harrera seguruen baliabide eredu berria modu mailakatuan ezartzea (larrialdietako zentroa, harrera etxea eta tutoretzapeko etxebizitzak), indarrean dagoen emakumeen aurkako indarkeriaren foru legearen edukiekin eta printzipioekin lerrokatuko dena. | - NABI |
| **10.2.6.** Arreta integraleko eredua diseinatu eta abian jartzea emakumeen berreskurapenerako prostituzio testuinguruetan eta harrera eta arreta espezializatu eta integraleko baliabideak indartzea emakume eta neskei prostituzio testuinguruetan eta sexu esplotazioko helburuko salerosketan. | - NABI |
| **10.2.7.** Indarkeria sexualetik bizirik ateratako neska eta emakumeentzat arreta integraleko berariazko baliabide bat diseinatu eta abian jartzea (krisi zentroa). | - NABI |
| **10.2.8.** Emakumeei Laguntza Juridikoa emateko Zerbitzuaren (SAM) zuzkidura hobetzea eta Nafarroa osoan ematen den arreta homogeneizatzea, erreferentziazko araudian ezarritakoa oinarritzat hartuz. | - Justizia ZN |

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **10.2.9.** Prestakuntzako ibilbide pertsonalizatuak garatzea enplegurako eta laneratzeko, emakumeen aurkako indarkeriatik bizirik ateratako emakumeei zuzenduta eta foru eta toki administrazioetatik kontratatzea sustatzea. | - Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren ZN<br>- NL-NEZ<br>- Toki erakundeak |
| **10.2.10.** Laguntza ekonomikoen sistema eguneratu eta hedatzea, baliabide honetan egindako ebaluazioaren emaitzetatik abiatuz, posible eginen duena bizirik aterako diren biktimek aski estaldura izatea haien beharrizanak berehala betetzeko, etxebizitza beharrizanak barne (sarbidea eta oinarrizko ekipamendua). | - Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren ZN<br>- Etxebizitza ZN<br>- NABI |
| **10.2.11.** Indarkeriatik bizirik ateratako biktimei zuzendutako etxebizitza publikoko eskaintza handitzea Nafarroa osoan eta etxebizitza horietara sarbidea izateko prozedurak berrikustea, berehala eskuragarri izatea erraztuz. | - Etxebizitza ZN<br>- NABI |
| **10.2.12.** Foru lurralde osoan berehalako arreta eta babes espezializaturako polizia baliabideen zuzkidura hobetzea. | - Barne ZN |
| **10.2.13.** Berariazko baliabide espezializatuak gehitzea,emakumeek soilik haien erreferentziazko hizkuntzan hitz egiten ahal duten eta/edo desgaitasunen bat duten egoeretan informazio, arreta eta berreskurapen sistematik erantzuna ematea ahalbidetuz. | - Migrazio Politiketako ZN<br>- Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia |
| **10.2.14.** Arauzko bideak ezartzea, indarkeriatik bizirik atera diren emakumeen taldea lehentasuneko talde gisa har dadin sarbidea izaterakoan enplegura, haur eskoletara eta egoitza zentro publikoetara, egoerak hala eskatzen duenean. | - Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia<br>- Hezkuntza ZN<br>- Toki erakundeak |
| **10.2.15.** Berehala erantzutea kokapen berri batek edo etxez aldatzeak eragina duenean bizirik atera diren biktimen seme-alaben eskolatzean. | - Hezkuntza ZN |

## 0.0.10.3. Emakumeen aurkako indarkeriari heltzean erreparaziorako eskubidea eta mina ez errepikatzeko eskubidea gehitzea.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **10.3.1.** Emakumeen aurkako indarkeria kausengatik hasitako zigor prozeduretan pertsonatzeko mekanismoak hobetzea. | - Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko ZN |

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **10.3.2.** Emakumeen aurkako indarkeria errefusatzeko ekintza publikoak sustatzea, eta bizirik atera diren biktimei protagonismoa ematea, birbiktimizazioa saihestuz. | - NABI<br>- Toki erakundeak |
| **10.3.3.** Arreta eta berreskurapenerako sistema publikotik estaltzen ez diren osasun eta gizarte beharrizanak identifikatzea, erantzuna emanen duten bideak aztertzeko (laguntza ekonomikoak eta beste batzuk). | - NABI |
| **10.3.4.** Erasotzaileekin programa terapeutikoa indartzea eta hedatzea. | - Justizia ZN |
| **10.3.5.** Bizirik atera diren biktimek pairatutako kalteengatik kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izatea ahalbidetuko luketen neurriak ezartzeko bideragarritasuna aztertzea. | - Justizia ZN<br>- NABI |

## 0.0.10.4. Ziurtatzea profesionalen sareak prestakuntza espezializatua, berariazkoa eta eguneratua duela.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **10.4.1.** Indarkeriaren esku hartze esparruetarako NFKAtik hedatzen den prestakuntza espezializatuko politika aztertzea eta oinarrizko prestakuntzako eta, duten erantzukizunaren arabera, arreta esparruen (osasuna, polizia, gizartea, juridikoa eta judiziala, hezkuntza, enplegua) prestakuntza espezializatuko beharrizanak identifikatzea. | - Osasun ZN<br>- Hezkuntza ZN<br>- NABI |
| **10.4.2.** Hasierako prestakuntza eta prestakuntza espezializatuko programa bat diseinatzea eta garatzea, nahitaezkoa eta jarraitua, indarkeriatik bizirik atera diren biktimei zuzendutako informazio, arreta, babes eta berreskurapenean erantzukizun zuzena duten profesionalen sare osoarentzat. | - NABI<br>- Toki erakundeak |
| **10.4.3.** Jarraibideak garatzea, NFKAtik kudeatzen diren baliabide publiko espezializatu guztietako profesionalek, kanpotik kudeatzen direnak barne, irizpide homogeneoak izan ditzaten emakumeen aurkako indarkeria arloan kaudimen teknikoa definitzeko. | - Justizia ZN<br>- Barne ZN<br>- Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren ZN<br>- Osasun ZN<br>- NABI |
| **10.4.4.** Emakumeen aurkako indarkeriari arreta jartzeko zerbitzu eta baliabideetan esku hartzen duten profesionalen arteko hausnarketa partekaturako espazioak sortzea. | - NABI<br>- Toki erakundeak |
| **10.4.5.** Unibertsitateei babesa ematea emakumeen aurkako indarkeria arloan espezializatutako master edo titulu ofizialak irakasteko. | - NABI |

# 11. HE
# BIRBIKTIMIZAZIOA SAIHESTEA ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZAREN ETA KOORDINAZIOAREN BIDEZ

## 0.0.11.1. Foru eta toki administrazioen artean koordinazioa finkatzea.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **11.1.1.** Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre Egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea garatzeko Ekintza Plana ebaluatu eta eguneratzea, baita esparruko plan sektorialak ere (Hezkuntza, Osasuna, Gizarteratzea, Enplegua eta Etxebizitza, Berdintasuna, Justizia eta Barne Sektorea). | - NABI |
| **11.1.2.** Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean jardutea koordinatzeko foru eta toki egiturak indartzea. | - NABI<br>- Toki erakundeak |
| **11.1.3.** Indarkeriaren aurrean jardutea koordinatzeko eskualde eta tokiko protokoloak bultzatzea eta garatzea, landa eremuko ezaugarriak aintzat hartuz. | - NABI<br>- Toki erakundeak |

## 0.0.11.2. Erakundeen arteko koordinazioa finkatzea.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **11.2.1.** Nafarroan emakumeen aurkako indarkeria gaietan eskumenak dituzten erakundeen artean azkar eta malgutasunez koordinatzea. | - NABI |
| **11.2.2.** Sexu esplotaziorako salerosketaren biktima diren emakume eta neskekin jardutea koordinatzeari bultzada ematea eta horren jarraipena egitea. | - NABI |
| **11.2.3.** Emakumeen aurkako indarkeriari zuzendutako arreta hobetzeko eta indarkeria hori prebenitzeko Estatuko Gobernuarekiko etengabeko lankidetza eta koordinazioa. | - NABI |

# IV. ILDO ESTRATEGIK

GIZARTE ZIBILAREN PROTAGONISMOA SUSTATZEA EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA ERAIKITZEN ETA SENDOTZEN

# IV. ILDOAREN DESKRIBAPENA

Toki eta foru administrazioetatik egiten den esku hartzearekin batera, gizarte zibilak gero eta betebehar garrantzitsuagoa du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eraiki eta sendotzen. Plan Estrategiko honen hasieran aipatu bezala, pertsona guztiek berdintasuna balio gisa ikasi eta barneratzeak esan nahi du bizitzaren esparru guztietan emakumea gutxiesteari eusten eta hori normalizatzen duten beste balio batzuk banaka zein taldean desmuntatu egin behar direla. Prozesu horrek eskatzen du lana modu koordinatuan egitea eta espezializatua izatea zernahi arlo eta gunetan, esaterako, hezkuntzan. Aldaketarako erreferentzia dira. Prozesu horren eragina argia da berdintasunerantz jotzeko eraldaketan.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa balioen aldaketa bultzatzen ari da dagoeneko, hainbat politikarekin, jarraian deskribatuko diren jarduketa eta programen bitartez:

- **Hezkuntza:** Skolae Hezkidetza Programaren bidez, 221 ikastetxe baino gehiago hezkidetza eredu bat garatzen sakontzen ari dira Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan. 2021ean, Nafarroako Foru Komunitateko sare publiko eta itunpeko sareko 3.800 irakaslek baino gehiagok Skolaeren bitartez egiten den irakasleentzako prestakuntzan hartu zuten parte.

- **Unibertsitateak:** 2020an Nafarroako Unibertsitate Publikoak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana (2022-2027) onartu zuen eta 2021ean Genero, Emakume eta Berdintasun Gaien Master Ofiziala onartu zuen.

- **Osasuna:** Osasunari dagokionez emakumeen eta gizonen artean desberdintasun nabarmenak daudela ikusita (emakumeek bizi itxaropen luzeagoa dute jaiotzerakoan, bizi ohitura hobeak dituztelako, baina osasun propioaren pertzepzioa okerragoa da adin guztietan), edo aintzat hartuz emakumeek neurri handiagoan erabiltzen dituztela lehen arretako eta erizaintzako kontsultak, eta, gizonek, aldiz, gehiago jotzen dutela larrialdietara eta gehiago ospitaleratzen dituztela, bada, hori aintzat hartuz, osasunaren arlotik emakumeek haien osasunari buruzko erabaki autonomoak hartu ahal izateko programak garatzen ari dira eta, genero ikuspegia osasun programa eta planetan txertatuz, bizitza osasuntsuak izan ditzaten.

- **Kirola:** Emakumeak eta Kirola Programatik zein Nafarroako Gobernuak sustatutako beste batzuetatik kirol jardueran eta jarduera fisikoan emakumeen eta gizonen parte hartzearen genero arrakalak landu dira, baita hainbat kirol diziplina eta modalitate aintzat hartuz gero dagoen segregazioa ere.

- **Hedabideak:** Nafarroako Berdintasunerako Institutuak dagoeneko “Genero ikuspegiarekin komunikatzen berdintasunezko gizarterako" programaren bi edizio antolatu ditu, Nafarroako Kazetari Emakumeen Elkartearekin lankidetzan. Profesionalei lan egiteko genero ikuspegia eta tresnak ematea da helburua. 2022. urtean 70 profesionalek hartu dute parte.

- **Kultura:** Oinarrizko eskubidea eta gizarte eraldaketarako tresna da. Nafarroako Eskubide Kulturalei buruzko urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legeak genero berdintasuna jaso zuen oinarritzat hartzen dituen balioen artean, eta eskubide gisa hartzen ditu kultura bizitzara sarbidea izatea eta parte hartzea; halaber, genero berdintasuna bermatzen du Nafarroako Kulturaren Kontseiluaren osaeran. Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoak (2017-2023) printzipioen artean aipatu zuen genero indarkeriaren aurkako borroka kultura proiektuetan, eta begirada integratzaileen artean begirada feminista gehitu zuen; sentsibilizazio kanpainak aurreikusten ditu kultura jardueren praktikan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari lotutako balioak sustatzeko eta kulturarekin lotura duten kontratazio, hitzarmen, dirulaguntza, beka eta programetan berdintasuna txertatzea proposatu zuen.

Balio aldaketan gizarte zibilak protagonismo handiagoa izan behar du; emakumeek eta gizonek berdintasunarekiko konpromiso aktibo eta erantzulea izan behar dute, pertsona guztien ongizaterako bide modura. Horren haritik, elkarteen lana ezinbestekoa da, hain zuzen ere, ikuspegi feminista aintzat hartuz, emakumeen beharrizanei ahotsa jarriko dioten elkarteak, emakumeen aniztasunetik, eta erakundeekin izanen duten elkarrizketak eragina izan behar du politiketan. Emakumeen aurkako desberdintasunak mantendu eta naturalizatzen dituzten matxismoa eta misoginia modu argudiatuan desmuntatzeko gaitasun gero eta handiagoa izanen duen gizarte zibila behar da. Gizonak inplikatuko diren gizarte zibila behar da, eta ordezkaritza daukaten espazioetan gaia azpimarratuko dutenak, berdintasunak ez dielako soilik emakumeei on eginen, baita gizonei eta gizarte osoari ere.

**“Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eraikitzen eta sendotzen gizarte zibilaren protagonismoa sustatzeko”** ildo hau **3 helburu estrategikotan** egituratu da; ondoren, helburu horiek **10 helburu operatibotan eta 46 ekintzatan** zehaztu dira; 2022-2027 aldian zehar jarriko dira abian.

# 12. HE
# GIZARTEAK BERDINTASUNERANTZ AURRERA EGITEA AHALBIDETUKO DUTEN BALIOAK GARATZEA

## 0.0.12.1. Hezkidetza zeharkakotasunez gehitzea hezkuntza etapa guztietan (Haur Hezkuntza, derrigorrezko hezkuntza eta derrigorrezko hezkuntzaren ondokoa).

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **12.1.1.** Nafarroako Gobernuaren hezkidetzako plan estrategikoak garatzea eta jarraipena ematea. | - Hezkuntza ZN<br>- Lanbide Heziketaren ZN |
| **12.1.2.** Haur Hezkuntza, derrigorrezko hezkuntza eta derrigorrezko hezkuntzaren ondoko ikastetxe guztietan hezkidetzako proiektuak prestatzea, eta hezkidetza proiektua curriculumeko programazio guztietan txertatzea. | - Hezkuntza ZN<br>- Lanbide Heziketaren ZN<br>- Toki erakundeak |
| **12.1.3.** Ikastetxeetan Hezkidetza Identitate Planak egitea, ezartzea eta ebaluatzea, Nafarroako Gobernuak ezarritako irizpideetatik abiatuz. | - Hezkuntza ZN<br>- Lanbide Heziketaren ZN |
| **12.1.4.** Nafarroako hezkuntza sistemako irakasleei hezkidetzako nahitaezko prestakuntza ematea. | - Hezkuntza ZN<br>- Lanbide Heziketaren ZN |
| **12.1.5.** Jarduketak bultzatzea, posible eginen dutenak bai orientazio profesionala bai lanbide guztiak genero estereotiporik gabe garatzea eta berdintasunerantz aurrera egitea sustatzea. | - Hezkuntza ZN<br>- Lanbide Heziketaren ZN |
| **12.1.6.** Nafarroako Gobernuaren hezkidetza politikaren eragina ebaluatzea, baita berdintasunean erreferentziazko foru araudiarekin koherentzia izatea ere. | - Hezkuntza ZN<br>- Lanbide Heziketaren ZN |

## 0.0.12.2. Goi mailako hezkuntzako erakundeek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerantz aurrera egitearekiko konpromisoa sustatzea.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **12.2.1.** Babesa ematea Nafarroako goi mailako hezkuntzako eta ikerkuntzako sistemari berdintasun planak eta/edo genero ikuspegia graduen, gradu ondoko programen eta doktorego programen curriculumetan zeharkakotasunez txertatzea zehaztuko duten proiektuak prestatu eta abian jartzean, eta emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna esparru guztietan lortzeko helburua betetzeko moduan. | - Unibertsitateko ZN<br>- NABI |
| **12.2.2.** Egitasmoak sustatzea, unibertsitateetako irakasleek eta ikertzaileek prestakuntza izan dezaten hezkidetzan eta haien jardunean aplikatutako berdintasunean, bereziki hezkuntza zientzien gradu ikasketak edo irakasleak prestatzeko masterrak egiten dituztenen kasuan. | - Hezkuntza ZN<br>- NABI |
| **12.2.3.** Genero, Emakume eta Berdintasun Gaien Master Ofiziala bultzatzea, eta Genero, Emakume eta Gai Feministen Katedra sortzea bultzatzea, Nafarroako Unibertsitate Publikoan. | - NABI |
| **12.2.4.** Unibertsitateekin lankidetzan aritzea titulu propioak diseinatu eta garatzen, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun gaietan prestakuntza eta eguneratze erronkei erantzuna emateko. | - NABI |
| **12.2.5.** Nafarroan emakumeen bizi baldintzak hobetzen lagunduko duten ikerkuntza lan diziplina anitzak egitea bultzatzea. | - NABI |

## 0.0.12.3. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioa bermatuko duen hezkuntza ez-formala sustatzea.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **12.3.1.** Prestakuntza progresiboa berdintasunari dagokionez, lurralde osoko langileei, edukien ikerkuntza, erakusketa, dinamizazio, irakaspen eta hedapen lanak egiten badituzte hezkuntzako kultura, kirol eta aisialdiko jardueretan. | - Kultura ZN<br>- Nafarroako Kirolaren Institutua<br>- Nafarroako Gazteriaren Institutua |
| **12.3.2.** Jarraibideak garatzea, genero ikuspegia eta ikuspegi intersekzionala txertatzeko Nafarroako Foru Komunitateko Administraziotik bultzatzen diren irakaskuntza ez-formaleko baliabideetan. | - Kultura ZN<br>- Nafarroako Kirolaren Institutua<br>- Instituto Navarro de la Juventud<br>- Euskarabidea |

## 0.0.12.4. Emakumeek eta neskatxek jarduera fisikoa eta kirola egitea bultzatzea, kirol diziplina eta modalitate ugaritan, aisialdi gisa zein modu lehiakorrean.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **12.4.1.** Nafarroan jarduera fisikoa eta kirola egiteari buruzko aldizkako informazioa eta generoaren araberako analisia (eskola kirola, kirol federatua, kirol irakaskuntzak, aisialdiko jarduera fisikoa, kirol federatua eta goi mailako kirola, besteak beste), baita emakumeen eta gizonen parte hartzeari (lan boluntarioa barne), lehentasunei, mailetako eta esparruetako jarraitutasunari zein kirol arloan baliabideetara sarbidea izan eta horiek kontrolatzeari dagokienez ere (dirulaguntzak, bekak, enplegua, lehiaketetako sariak ematea, eta abar). | - Nafarroako Kirolaren Institutua<br>-Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko ZN |
| **12.4.2.** Kirola eta jarduera fisikoa sustatzea eta laguntza ematea emakumeek eta neskek kirol diziplina eta modalitateetan presentzia izan, parte hartu eta jarraitutasuna izan dezaten bizitzaren etapa guztietan. | - Nafarroako Kirolaren Institutua |
| **12.4.3.** Kirol jarduera mistoa sustatzea, hezkidetzaren ikuspuntutik eta txiki-txikitatik. | - Nafarroako Kirolaren Institutua |
| **12.4.4.** Kirola egiten duten emakumeei protagonismoa emanen dien ekintzak egitea, batez ere presentzia txikiagoa den esparruetan, baita kirol esparru feminizatuenetan gizonen parte hartzea sustatuko duten ekintzak egitea ere. | - Nafarroako Kirolaren Institutua<br>- Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua |
| **12.4.5.** Eredu maskulinoetatik abiatuta diseinatutako entrenamendu eta ariketen patroi biomekanikoak jarduera fisikora eta kirolera eramateak emakumeen osasunean eragiten dituen ondorioen inguruko sentsibilizazioa, emakumeen eta gizonen egitura eta fisiologia desberdintasunak aintzat hartuz. | - Nafarroako Kirolaren Institutua<br>- Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua |
| **12.4.6.** Emakumeek parte hartzen duten kirol diziplina eta modalitateek komunikabideetan (euskaraz eta gaztelaniaz) duten espazioa eta babesa areagotzeko ekintzak garatzea. | - Nafarroako Kirolaren Institutua |
| **12.4.7.** Goi mailako kirolarien artean kontziliazio erantzukidea errazteko programak garatzea. | - Nafarroako Kirolaren Institutua |

## 0.0.12.5. Genero arrakalak saihestea emakumeek eta gizonek kulturan duten parte hartzean.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **12.5.1.** Nafarroan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerantz aurrera egiteko emakumeek eta talde eta elkarte feministek egin duten ekarpenaren balioa nabarmentzea. | - Kultura ZN<br>- Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako ZN<br>- Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen ZN |

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **12.5.2.** Kultura eta aisialdi jardueretan eta jai jardueretan genero diskriminazioak saihesteko neurriak sustatzea, aintzat hartuz hedapena, antolaketa, edukiak, parte hartzea (lan boluntarioa barne hartuz) eta aurreikusitako aitorpenak eta sariak. | - Kultura ZN<br>- Euskarabidea<br>-Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko ZN |
| **12.5.3.** Emakumeek kulturaren esparru guztietan egindako ekarpenak ikusgarri egitea eta emakumeen obra sustatzea (eskuratzeak, erakusketak, argitalpenak, programazioak, hitzaldiak, obrak bildumetan, eta abar). | - Kultura ZN<br>- Euskarabidea<br>- Bakearen eta Bizikidetzaren ZN |
| **12.5.4.** Kulturaren bitartez rol eta estereotipo sexistak haustea sustatzen duten entitate era eragileekin lankidetza eta babesa. | - Kultura ZN<br>- Euskarabidea<br>- NABI<br>- Bakearen eta Bizikidetzaren ZN |
| **12.5.5.** Emakumeek kultura ondare immaterialaren protagonista, transmisore eta babesle gisa egindako lana aintzat hartuko duten jarduerak sustatzea Ondare Etnologiko eta Immaterialaren Bulegoan eta Julio Caro Baroja Nafarroako Museo Etnologikoaren jardunean. | - DG Cultura<br>- Euskarabidea<br>- Bakearen eta Bizikidetzaren ZN |
| **12.5.6.** Kultura baliabideak lurralde osoan irisgarriak izatea eta kultura eskaintzaren dibertsifikazioa, emakumeen errealitate eta interes desberdinak aintzat hartuz. | - Migrazio Politiketako ZN<br>- Kultura ZN |
| **12.5.7.** Museo zentroetan ekintzak sustatzea (obrak eskuratzea, ikerkuntza, jarduerak eta hedapena), emakumeak ikusgarri egiteko kultura ondare materialaren sortzaile, espezialista, transmisore eta babesle modura, eta Nafarroako museoetan ikusgarri egitea. | - Kultura ZN |



# 13. HE
## EMAKUMEEN AHALDUNTZEA SUSTATZEA, ETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUN ERAGINKORRAREN ERAIKUNTZAN PARTE HARTZEA, PROPOSAMENAK EGINEZ

**0.0.13.1.** Laguntzea emakumeek bizitza osasungarriak izan ditzaten eta haien osasunaren gaineko erabakiak modu autonomoan har ditzaten.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **13.1.1.** Berdintasuna zeharkakotasunez eta eraginkortasunez txertatzea osasun plan eta programetan, arreta maila guztietan, banakakoak zein talde mailakoak. | - Osasun ZN |
| **13.1.2.** Sexu aldagaia eta genero adierazleak txertatzea arretari, eskariari, nagusitasunari, gaixotasunen eraginari eta gogobetetzeari lotutako osasun informazioan. | - Osasun ZN |
| **13.1.3.** Azterketa eta ikerkuntzen bitartez, hobekuntzak identifikatzea emakumeen eta gizonen diagnostiko eta erikortasun desberdinetan, batez ere emakumeei erasaten dieten gaixotasunetan eta genero desberdintasunek emakumeen osasunean duten eraginean, osasun jarduneko protokolo eta planetara eramaten ahal badira. | - Osasun ZN |
| **13.1.4.** Berdintasuneko prestakuntza eta genero ikuspegia eta intersekzionala zeharkakotasunez gehitzea osasun arloko langileen prestakuntza jarraituko planetan. | - Osasun ZN |
| **13.1.5.** Nafarroako sexu eta ugalketa osasunaren zentroen sarearen lana indartzea. | - Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua |
| **13.1.6.** Informazio eskuragarria hainbat hizkuntzatan hedatzea, emakumeei ahalbidetuko diena, batez ere gazteenei eta zaurgarritasun handiagoko egoeran bizi direnei (migratzaile eta desgaitasunen bat duten emakumeei, esaterako), gehiago jakitea eta erabakiak hartzea kontrazepzioari, haurdunaldia modu boluntarioan eteteari, sexu transmisioko infekzioak saihesteko neurriei eta nahi ez diren haurdunaldiak saihesteko erantzukidetasunari dagokienez, baita harreman afektibo eta sexual osasungarri eta gogobetegarriei dagokienez ere. | - Osasun ZN<br>- Hezkuntza ZN<br>- Lanbide Heziketaren ZN<br>- Nafarroako Gazteriaren Institutua<br>- Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia<br>- Migrazio Politiketako ZN |

## 0.0.13.2. Emakumeen ahalduntzean laguntzea haien “elkarteetan eta taldeetan eta talde horietatik”, ikuspegi intersekzionala eta ikuspegi feminista aintzat hartuz.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **13.2.1.** Banakako zein talde mailako ahalduntzerako esparru programak bultzatzea eta jarraipena egitea lurralde osoko elkarte eta mugimendu feministekin eta/edo emakumeen elkarte eta mugimenduekin. | - NABI<br>- Toki erakundeak |
| **13.2.2.** Ahalduntze proiektuetan elkarte eta mugimendu feministei eta/edo emakumeen elkarte eta mugimenduei babesa eta aholkularitza espezializatua ematea. | - NABI<br>- Toki erakundeak |

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **13.2.3.** Nafarroako emakumeen eta/edo feministen elkarteek egindako lan autonomoa sustatzea eta laguntzea, koordinazioen, federazioen, sareen eta parte hartze eta lankidetzarako beste modu batzuen bitartez. | - NABI<br>- Toki erakundeak |
| **13.2.4.** Berdintasun arloan parte hartze eta eragiteko agertzen ari diren formak aztertzea, batez ere emakume gazteenen taldeetan. | - Nafarroako Gazteriaren Institutua<br>- Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko ZN<br>- NABI<br>- Toki erakundeak |
| **13.2.5.** Nafarroako ahalduntze eskolen eredu bat diseinatzea, ikuspegi feminista txertatuko duena, toki erakundeen berezitasunetara eramaten ahal dena eta tamainari dagokionez moldagarria. | - NABI<br>- Toki erakundeak |
| **13.2.6.** Lurralde osoan berdintasunaren alde lan egiten duten emakumeen elkarte eta talde feministen mapa aldizka eguneratzea eta hedatzea. | - NABI |
| **13.2.7.** Emakumeen ahalduntzea sustatzea eta emakumeen elkarte eta mugimendu feminista indartzea, ekintza humanitarioko proiektuetatik eta garapenerako lankidetza politiketatik. | - Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren ZN |

## 0.0.13.3.

## Reforzar y generar espacios para que las mujeres sean interlocutoras con las instituciones y participen con mayor empoderamiento y liderazgo en organizaciones políticas, económicas y sociales.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **13.3.1.** 13.3.1. Emakumeek Nafarroako Foru Komunitateko politika publikoetan parte hartze sozial eta politikoa izateko bideak aztertu eta artikulatzea. | - NABI |
| **13.3.2.** Nafarroako Berdintasunerako Kontseilua gaitzea eta bere lan tresnak indartzea. | - NABI |
| **13.3.3.** Espazioak sustatzea emakumeek, duten aniztasunean, haien eskubideen berri izan dezaten eta beharrizanak erakundeetara helaraz ditzaten. | - NABI<br>- Toki erakundeak |
| **13.3.4.** Toki politikan parte hartzen duten emakumeen ahalduntzerako taldeak eta foroak finkatzea. | - NABI<br>- Toki erakundeak |

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **13.3.5.** Erakunde politikoei, ekonomikoei eta sozialei babesa ematea, espazio horietan parte hartzen duten emakumeek lidergo eta eragin handiagoarekin har dezaten erakundeekiko solaskide izatea. | - NABI<br>- Toki erakundeak |

## 14. HE
## EMAKUMEEK ETA GIZONEK HERRITARTASUN EREDU BERDINZALEA GARATZEAREKIN DUTEN KONPROMISOA SUSTATZEA

**0.0.14.1.** Herritarrak sentsibilizatzea emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekiko konpromisoa handitzeko.



| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **14.1.1.** Komunikazio ekintzak egitea, herritarrek berdintasunarekiko duten konpromisoa handitzeko, bereziki emakumeen eskubideak eraiki eta garatzeko garrantzitsuak diren datak direla medio. | - NABI<br>- Toki erakundeak |
| **14.1.2.** Berdintasun eraginkorra eraikitze aldera gizonen benetako konpromisorako eta parte hartze aktiborako pizgarriak jartzea. | - NABI<br>- Toki erakundeak |
| **14.1.3.** Sentsibilizazio programak bultzatzea, lagungarriak izanen direnak herritarrek zalantzan jar ditzaten emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak eta berdintasuna lortzearekin konpromisoa hartzeko Nafarroako lurralde aniztasuna aintzat hartuz. | - NABI<br>- Toki erakundeak |

**0.0.14.2.** Eztabaida sozialerako espazioak sortzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko eta finkatzeko aurrera egite aldera.

| EKINTZAK | ARDURADUNA |
|---|---|
| **14.2.1.** Berdintasun arloko ikerkuntzek eta azterketek ematen duten ezagutza herritarren artean sozializatzea, eztabaida soziala sustatuz. | - Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako ZN<br>- Migrazio Politiketako ZN<br>- Errealitate Sozialaren Behatokiaren eta Gizarte Politiken Plangintzaren eta Ebaluazioaren ZN<br>- Nafarroako Gazteriaren Institutua<br>- Nafarroako Kirolaren Institutua<br>- Kultura ZN<br>- Landa Garapeneko ZN<br>- Osasun ZN<br>- Hezkuntza ZN<br>- Lanbide Heziketaren ZN<br>- Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiekzioaren eta Lanaren ZN<br>- NL-NEZ<br>- Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen ZN<br>- NABI<br>- Toki erakundeak |
| **14.2.2.** Berdintasunaren arloko hausnarketa espazioak sortzea, herritarrei zuzendutakoak, aintzat hartuz emakumeen eta gizonen interes eta errealitate desberdinak. | - INAI/NABI |

# 4. PLAN ESTRATEGIKOAREN

# 4.3. PLAN ESTRATEGIKOAREN KUDEAKETA EREDUAREN ELEMENTUEN LABURPENA

Atal honetan 2022-2027 aldirako Nafarroako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan Estrategikoaren kudeaketa eredua aurkeztuko da. Eredu honetan bildu da bai planeko jarduketa eta helburu guztiak planifikatzeko, jarraipena egiteko, ebaluatzeko eta aurrekontuak egiteko jarraituko den sistema, bai prozesu horretan inplikatutako egiturak, haien rola deskribatuz. Kudeaketa eredu hori ezartzeari esker posible izanen da orrialde hauetan jasotako proposamenaren tamaina eta irismeneko plangintza modu eraginkorrean hedatzea; izan ere, garapen horretan inplikatuta daude, toki erakundeak ez ezik, autonomiarekin eta kasuan kasuko eskumen esparruan, baita Nafarroako Gobernuko departamentu guztiak ere, zuzendaritza eta organismoen bitartez.

Plan Estrategikoaren kudeaketa eredua definitzeko lau elementu hartu dira aintzat: Araudia, Plan Estrategikoaren amaieran deskribatu dena; mailaz mailako eskumena berdintasunean, berariaz aurreikusi dena berdintasunerako foru eta toki administrazioen gobernagarritasun eredua landu denean; eta, atal honen hasieran aipatu den moduan, berdintasunerako edo genero arkitekturarako antolaketa instituzional bat eta plana ezartzeko sistema bat izatea. Azken bi elementu horiek berariaz landu dira hurrengo epigrafeetan.

## ARAUDIA

Erreferentziako arauekin eta programekin bat etortzea.

## MAILAZ MAILAKO ESKUMENA BERDINTASUNEAN

Plan Estrategikoaren hedapenean parte hartzen duten langileen mailaz mailako gaikuntza politikoa zein teknikoa, zeren eta, berdintasunerako eskumenik gabe, aurreikusitako ekintzak haren ahalmen eraldatzailea eta inpaktua murrizten ditu.

## ERAKUNDEEN BERDINTASUNERAKO ANTOLAMENDUA

Lankidetzako lan sistema bat hedatzea, zeinetan Plan Estrategikoko ekintzak garatzen inplikatutako erantzukizun maila guztiek modu aktiboan elkarrekin hartzen dituzten ardurak. Horretarako, genero arkitektura bat behar dugu, askotariko helburuei modu sistematikoan eta mailakatuan erantzuteaz gain, jarduketen koordinazioa, programazioa eta aurrekontua erraztuko dituena, ikusmolde komun eta partekatu batetik abiaturik.

## PLANGINTZA, JARRAIPEN, EBALUAZIO ETA AURREKONTU SISTEMA

Plan Estrategikoa ezartzeko eta ebaluatzeko prozedura definitzea. Prozedura hori malgua izanen da eta, foru eta toki administrazioen ekintzen eta errealitateen jarraipenaren emaitzetatik abiaturik, behar berrietara edo aurreikusi gabeko errealitateetara egokitzeko modukoa izanen da.

# 4.1. PLAN ESTRATEGIKOAN BULTZATU, KOORDINATU ETA PARTE HARTZERAKO EGITURAK

## FORU ADMINISTRAZIOKO EGITURAK

### NAFARROAKO BERDINTASUNERAKO INSTITUTUA. NABI.

NABI Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuari atxikitako organismo autonomoa da, eta emakumeen eta gizonen artean berdintasun politikak koordinatu eta kudeatzeari dagokion eskumena aplikatzen du, baita emakumeen aurkako indarkeriari edo genero indarkeriari aurre egiteko neurri integralak ere (260/2019 Foru Dekretua, urriaren 30ekoa, Nafarroako Berdintasunerako Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituena).

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legeak ezarri zuenez, Plan Estrategikoaren organismo **bultzatzaile** moduan, NABIri dagokio plangintza hau hedatzeari lotutako hurrengo funtzioak betetzea:

- Plan Estrategikoa bultzatzea, aholkuak ematea, koordinatzea eta ebaluatzea.
- Departamentuetako eta toki erakundeetako berdintasun unitateak koordinatzea eta haiei aholkuak ematea.
- Administrazio publikoen artean berdintasunaren arloan elkarlana eta koordinazioa bultzatzea.
- Nafarroako Administrazio Publikoetako eta funtzio publikoan eskumenak dituen departamentuko langileei berdintasun prestakuntza ematea bultzatzea, NFKAko eta haren erakunde autonomoen berdintasun plana prestatzeko.

Plan honetan NABIri esleitu zaizkion kudeaketa eta aholkularitza funtzioak egiteko, araudiak ezarri du organismo horrek aski langile egonkor izanen duela dagozkion funtzioak efikaziaz eta efizientziaz egiteko (8.3 artikulua). Gainera, aipatutako araudiak jaso zuen Nafarroako Gobernuko departamentuetako **berdintasun unitate** horietako t**eknikariak**, berdintasunean egon behar dutenak prestaturik, organismo horretara atxikita egonen direla (9.2 artikulua). Langile horiek aholkularitza emanen diete zuzendaritza eta organismoei, berdintasuna haien politiketan zeharkakotasunez txertatzeko, eta departamentu bakoitzeko urteko berdintasun planak prestatuko dituzte.

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legeak ezarri zuen Lehendakaritza Departamentuko titularrari dagokiola zehatzeko ahala erabiltzea, foru lege horrek esleitzen dion moduan, eta zehatzeko araubideko administrazio espedienteak hasteko eskumena Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren gerentzia zuzendaritzako titularrari dagokio.

## BERDINTASUN UNITATEAK

NFKAko departamentuek berdintasuna zeharkakotasunez jaso behar dute politika publikoen multzoan. Horretarako, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legeak ezartzen du departamentu eta erakunde autonomo bakoitzean berdintasun unitate bat izanen dela, eta plan honekin zerikusia duten eginkizunen artean, honako hauek izanen dituela:

- Politika sektorialetan (planak, programak, araudiak, azterlanak eta estatistikak, etab. diseinatu eta betetzea) berdintasuna ezartzeko prozesua bultzatzea.
- Departamentu bakoitzaren eskumenen gaietan berdintasunaren printzipioa aplikatzeko aholkuak ematea.
- Plan Estrategikoaren lehentasunetatik eta jarraibideetatik abiaturik urtero prestatzen diren berdintasun planak betetzea.
- Foru legea kasuko eremu funtzionalean eraginkortasunez betetzen dela ziurtatzea.

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legearekin lerrokatze aldera departamentuetako berdintasun unitateak erregulatzea Plan Estrategiko honetan jasotako jarduketetako bat da.

## DEPARTAMENTU KOORDINAZIORAKO BATZORDEAK

### A EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO DEPARTAMENTUARTEKO BATZORDEA

Batzordea 2017an sortu zen, eta Nafarroako Gobernuaren 2017ko apirilaren 12ko Akordioa zela bide erregulatu zen; hala, elkarlanerako, lankidetzarako eta koordinaziorako sektorearteko organoa da, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioa eta emakumeen kontrako indarkeria desagerraraztea NFKAren politika guztietan integratzea du xede. Administrazioan berdintasuna lan esparru estrategikoetan zeharka jasotzeko zuzendaritza nagusi edo kudeaketa atalen titularrek eratuko dute, eta denen buru Nafarroako Gobernuko lehendakaria izanen da.

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legeak ezarri bezala, Departamentuarteko Batzordeari dagokio departamentuen berdintasun arloko jarduketak koordinatzea ziurtatzea, Plan Estrategikoaren esparruan plangintza sustatu eta bultzatzea eta ekintzen gauzatzeari eta betetze mailari jarraipena ematea. Berdintasunerako Departamentuarteko Batzordea urtean bitan bilduko da, gutxienez.

Berdintasunerako Departamentuarteko Batzordeak egokitzat jotzen duen departamentuarteko lantalde tekniko eta batzorde oro ezartzen ahalko du dagozkion funtzioetan lagundu eta babesa emateko. Horrez gain, Departamentuarteko Batzorde horren ardura izanen da urteko berdintasun plana ezagutzea eta maila politiko eta teknikoan hedatzea, baita baldintza aproposak sortzea ere, urteko berdintasun plana aurreikusitakoaren arabera garatu ahal izateko.

### B EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO DEPARTAMENTUARTEKO BATZORDEAK

Berdintasun unitateak erregulatzearen modu paraleloan erregulatuko dira batzorde horiek ere, eta departamentu bakoitzean Plan Estrategikoari lotutako jarduketak koordinatzearen arduradunak izanen dira. Departamentu bakoitzeko zuzendaritzetako ordezkariek osatuko dituzte eta haiei dagokie, berdintasun unitateek emandako aholkuez lagundurik, laneko lehentasunak ezartzea eta departamentu bakoitzean urteko berdintasun planak prestatzea koordinatzea.

## TOKI ERAKUNDEETAKO EGITURAK

Toki erakundeek, kasuan kasuko lurralde esparrutik eta berdintasun politiken arloan dituzten eskumenak baliatuz, haien esku hartzea lerrokatu eta koordinatuko dute, Plan Estrategiko honek ezarritako jarraibide eta orientazioak oinarritzat hartuz. Lan hori errazteko, haien tamainaren arabera, berdintasuneko arlo edo zerbitzuen laguntza izanen dute, eta langileek prestakuntza berezitua izanen dute berdintasunean. Bestalde, arloen arteko egituren bitartez barne koordinazioa antolatuko dute berdintasunaren arloan.

## ERAKUNDEARTEKO KOORDINAZIOAREN EGITURAK

### EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURREAN KOORDINATZEKO ERAKUNDEEN ARTEKO NAFARROAKO III. AKORDIOARI JARRAIPENA EMATEKO BATZORDEA

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren aurrean Koordinatzeko Batzorde hau sortzea Emakumeen Kontrako Indarkeriaren aurrean Koordinatzeko Erakundeen arteko Nafarroako III. Akordioan jasota dago, 2017ko azaroaren 24an sinatutakoa. Emakumeen aurkako indarkeriari arreta emateko arloan eskumenak dituzten Nafarroako Gobernuko departamentuetako ordezkariez gain, arlo horretan esku hartzen duten eta Nafarroan presentzia duten erakundeek ere integratzen dute batzordea.

### EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREN ARLOAN NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK KOORDINATZEKO ORGANOA

Organo hori sortzea Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legean aurreikusi zen; bertan ezarri zenez, Nafarroako Gobernuak, NABIren bitartez, udal mailako eta udalez gaindiko toki erakundeekin koordinatzeko egitura bat sortuko du, berdintasun arloko lankidetza eta kolaborazioa errazteko (12.7 artikulua).

Toki eta foru administrazioen artean berdintasunerako elkarrekintza organo hau erregulatzea Plan Estrategiko honetan jasotako jarduketetako bat da, eta honako hauek izanen dira bertan: NABI, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusia, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa, eta Nafarroako Tokiko Ekintza Taldeen eta toki erakundeen ordezkariak.

# PARTE HARTZEKO ETA KONTSULTARAKO EGITURAK

## NAFARROAKO BERDINTASUNERAKO KONTSEILUA

Nafarroako Berdintasunerako Kontseilua emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko kontsultak egiteko eta parte hartzeko organo gorena da Nafarroako Foru Komunitatean. Apirilaren 11ko 15/2018 Foru Dekretuak arautzen du, zeinak aldatzen baitu maiatzaren 9ko 22/2012 Foru Dekretua, Nafarroako Berdintasunerako Kontseiluaren funtzioak, osaera eta funtzionamendua arautzen dituena.

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentura atxikita dago, eta Kontseiluko kideak dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko ordezkariak, Nafarroako toki erakundeetako ordezkariak, enpresa eta sindikatuetako eta unibertsitateen ordezkariak, emakumeen eta talde feministen elkarte mugimenduaren emakume ordezkariak, eta zaurgarritasun handian dauden emakumeen interesen alde lan egiten duten herritar entitate edo erakundeen ordezkariak.

Elkarrekintzarako espazio horren funtzioei erreparatuz, Kontseiluari dagokio Plan Estrategiko honetan Nafarroako emakumeen elkarteen eta talde feministen lankidetzazko parte hartzea artikulatzea, planaren plangintzan, gauzatzean, jarraipena egitean eta ebaluatzean, baita urteko lan planak ezagutzea ere.

## PARTE HARTZEKO ETA KONTSULTARAKO TOKIKO KONTSEILUAK ETA BESTELAKO ORGANOAK

# 4.2. PLAN ESTRATEGIKOA HEDATZEA ETA EBALUATZEA

## BERDINTASUN PLANAK

Plan Estrategikoak berdintasun arloko erakundeen esku hartzea orientatzen duenez, foru eta toki administrazioek esparru plan gidari honen helburuak eta ekintzak zehaztuko dituzte, kontuan hartuta haien eskumenak, lehentasunak eta esku hartzeko gaitasuna. Horretarako, beren berdintasun planak eta esku hartzeko estrategiak prestatuko dituzte. Hartara, hedatu nahi duten jarduketa deskribatzeaz gainera, xeheki agertuko dituzte baliabide teknikoak, denbora aldetikoak, ekonomikoak, langileenak eta antolamendukoak, bideragarri egiteko plan horien abiatzea, jarraipena eta ebaluazioa.

Nafarroako Foru Administrazioari dagokionez, 6 berdintasun plan prestatuko dira, urte bakoitzeko bana. Abian jarriko diren ekintzak hautatzea departamentu bakoitzaren ardura izanen da, Plan Estrategikoko konpromisoen arabera, baina aintzat hartuko dira NFKAren berdintasun arloko laneko urteko lehentasunak, aurretiaz adostuko direnak Berdintasunerako Departamentuarteko Batzordean. Lehentasun horietatik abiatuz, departamentu bakoitzak, Berdintasun Unitateko langileen aholkularitzarekin, urteko berdintasun plana prestatuko du. NABIk plangintza prozesuan laguntza eman eta koordinazioa egiteaz gain lanerako tresna komunak sortuko ditu NFKA osorako, eta departamentu bakoitzak emandako informazioarekin Nafarroako Gobernuaren urteko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana prestatuko du.

Urte bakoitzeko bigarren hiruhilekoan ekinen zaio NFKAn urteko berdintasunerako planak prestatzeari; hala, hurrengo urteko aurrekontuan aurreikustea eta aurreikusitakoarekin bat etorriz gauzatzea da helburua. NABIk departamentu bakoitzak egindako plangintza aztertuko du, eta, hala badagokio, hobetzeko esparruak proposatuko dizkio; inplikatutako zuzendaritzekin batera landuko dira. Plangintza sistema hori urtero errepikatuko da.

Nafarroako toki erakundeek emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak NABIri jakinaraziko dizkiote, onartzen dituztenean, eta Plan Estrategikoko eduki, helburu eta esku hartzeko ildoekin lerrokatuko dituzte.

## EZARPEN ETA JARRAIPEN PROZESUA

NFKAn, behin berdintasunerako planak onartu ondoren, departamentu bakoitzak aurreikusitako neurriak ezarriko ditu; berdintasun unitateen eta NABIren aholkuak jasotzen ahal dituzte. Neurriak abian jartzeko, planak betearazteko ardura duten zuzendaritzek berdintasun prestakuntzan dituzten beharrak identifikatuko dituzte eta haiei erantzun beharko diete. Proiektu sektorialak abian jartzeko beharrezkoa izanen den berdintasuneko prestakuntza espezializatuaren zein neurriak gauzatzearen ardura ezarpenaz arduratuko den zuzendaritza bakoitzak hartuko du bere gain, bere baliabideekin.

Planaren jarraipenari dagokionez, NFKA osorako informazioa jasotzeko sistema komun eta homogeneo batetik eginen da; NABIk diseinatuko du. Urteko berdintasunerako planen jarraipena egiteko ardura NABIrena izanen da, departamentu bakoitzeko berdintasun unitateek bilduko duten informaziotik abiatuz.

Plan Estrategikoaren jarraipenaren emaitzen urteko txostena NABIk prestatu eta aurkeztuko du Departamentuarteko Batzordean eta Nafarroako Berdintasun Kontseiluan. Plan Estrategikoaren garapen mailari buruzko informazio globala, urteko berdintasunerako planen bitartez, beste interes talde batzuen artean ere sozializatuko da.

Toki erakundeak, beren eskumenen jardunean, berdintasunerako planak autonomiaz ezartzeaz arduratuko dira eta, horretarako, Nafarroako Gobernuaren laguntza izan dezakete, NABIren bitartez, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legeak ezarritako terminoetan (12. artikulua). Horrez gain, lankidetza, koordinazio eta kolaborazioko printzipio orokorra aplikatuz, beharrezko informazioa emanen diote NABIri berdintasun organismoak Plan Estrategikoaren jarraipena egin ahal izateko. Horretarako, berdintasun organismoak tresna homogeneoak garatuko ditu, toki erakundeen informazioa jaso eta tratatzea ahalbidetuko dutenak.

## EBALUAZIOA

NABIk Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan Estrategikoaren ebaluazioa bultzatuko du. Kanpotik eginen da jarraipenean urtero jasotako informazioarekin eta ikusmolde kualitatiboagoa ematen duten ebaluaziorako bestelako teknika osagarri batzuetatik. Tarteko ebaluazioa eta amaierako ebaluazioa eginen dira, Plan Estrategikoaren indarraldiaren bukaeran.

Plan Estrategikoaren ebaluazio honetan neurtuko dira ekintzen betetze maila, estaldura eta kalitatea, efikazia eta koherentzia, eta inpaktua, bai foru eta toki politiken eraldaketan eta Nafarroako administrazio publikoek berdintasun politikak egiteko duten gaitasun handiagoan, bai Nafarroako emakumeen eta gizonen arteko desparekotasunak gero eta murritzagoak izan daitezen. Ebaluazioak Plan Estrategikoa garatzen inplikatutako eragileen pertzepzioa ere gehituko du, Nafarroako Berdintasunerako Kontseiluarena eta Nafarroako emakumeen elkarte eta/edo elkarte feministena ere, bereziki diskriminazio ugariri aurre egin behar dieten emakumeen interesak ordezkatzen dituztenak.

Plan Estrategikoaren ebaluazioa, bitarteko fasean zein amaieran, hausnartu, ikasi, erantzukizun eta kontuak emateko tresna gisa ulertu da, eta erabilgarritasun handiko bide modura, genero arrakalak eta beharrizanak identifikatzeko, etorkizunean emakumeen eta gizonen arteko berdintasun arloan esku hartze publikoa orientatuko dutenak. Horregatik, Plan Estrategikoaren ebaluazioak ez du izaera finalista; aitzitik, Nafarroako Foru Komunitatean berdintasun arloko plangintza estrategikoko ondorengo aldietarako abiapuntu gisa hartu da.

# 4.3. MEMORIA EKONOMIKOA ETA AURREKONTU SISTEMA

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legean esaten da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan Estrategikoak haren aurrekontuaren gaineko informazioa eta aurreikuspenak behar dituela (14.3 e artikulua). Izan ere, zuzkidura ekonomikorik gabe ezinezkoa da esku hartzearen edukia hedatzea, eta, horrenbestez, ezin da bermatu emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren konstituzio printzipioaren eraginkortasuna eta, politika publikotik abiatuta, sexuagatik edozein diskriminazio zuzen edo zeharkakorik ez izatea.

Horren haritik, NFKAn Plan Estrategikorako aurreikusitako aurrekontua urtero zehaztuko da, urteko berdintasunerako planetan. Hala, ekintzen ardura duen zuzendaritza bakoitzak berdintasun planak gauzatzeko beharko den dirua kuantifikatuko du eta aurrekontu partidetan sartuko du. Toki erakundeei dagokienez, aurrekontua urtekoa izanen da, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan egindako berariazko esku hartzeetatik abiatuta. Horrez gain, Nafarroako Gobernuak, lankidetzaren printzipiopean, osatu egin beharko du toki erakundeen finantzaketa gaitasuna, berdintasunean erreferentziazko foru araudiak emandako funtzioei lotuta; nolanahi ere, toki erakundeek funtzio horiek finantzatzeko behar diren zuzkidurak jaso beharko dituzte aurrekontuetan (17/2019 Foru Legearen 12.4 art.). Horregatik, memoria ekonomikoa 2022. urterako zehaztapen ariketa modura planteatu da. Jarraian, berdintasun arloko esku hartzeei dagozkien aurrekontu partiden estimazioa jaso da, berdintasunean inpaktu zuzena izanik. Hala ere, garrantzitsua da aipatzea berdintasunean zeharka eragina duten beste programa batzuk ere badirela, baina ez direla aurrekontu honetan aintzat hartu, horien estimazioa egitea konplexua delako eta beste metodologia batzuk aintzat hartu behar direlako.

## 1. ILDO ESTRATEGIKOA
Genero ikuspegia foru eta toki administrazioen gobernantza ereduan txertatzea

**1. HE:**
Erreferentziazko berdintasun araudia Nafarroarako garatzea

**2. HE:**
Administrazio publikoen zerbitzuko langileei berdintasunaren arloan gaitasun handiagoak ematea

**3. HE:**
Administrazioen berdintasun politikek berdintasunean eragin positiboa izateko mekanismoak garatzen segitzea

**4. HE:**
Berdintasunerako erakundeen arteko koordinazioa, lankidetza eta parte hartzea sustatzea

**543.469€**

## 2. ILDO ESTRATEGIKOA
Genero berdintasuna duen eredu sozioekonomikorantz urratsak egitea

**5. HE:**
Zainketek bizitzaren jasangarritasunerako duten balioa onartzea

**6. HE:**
Emakumeen pobrezia murriztea Nafarroan

**7. HE:**
Nafarroako enpresa eta erakundeetan berdintasunaren aldeko konpromisoa sustatzea

**8. HE:**
Genero ikuspegia ezartzea berreskuratze eta eraldatze sozioekonomikorako prozesuan Nafarroan

**84.345.333€**

## 3. ILDO ESTRATEGIKOA
Emakumeen kontrako indarkeriari bukaera ematea

**9. HE:**
Emakumeen kontrako indarkeriak Nafarroan dituen ezaugarrien gainean sentsibilizatzea, haiei aurrea hartzea eta ezaugarri horien ezagutza handitzea

**10. HE:**
Emakumeen aurkako indarkeriaren aurreko erantzun publikoa erreferentziazko araudiarekin lerrokatzea

**11. HE:**
Birbiktimizazioa saihestea erakundeen arteko lankidetzaren eta koordinazioaren bidez

**4.674.884€**

## 4. ILDO ESTRATEGIKOA
Gizarte zibilaren protagonismoa sustatzea emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eraikitzen eta sendotzen

**1.912.141€**

**GUZTIRA 91.475.827€**

# 5. ADIERAZLE SISTEMA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan Estrategikoak adierazleen taula bat jaso du, egindako esku hartze proposamenetik abiatuz, Nafarroan emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak zein mailatan murriztu diren neurtzeko. Beste herrialde eta eskualde batzuekin konparazioak egiteko helburuz, posible denean, Nafarroako Genero Berdintasunaren Indizea hartu da kontuan, berariazko beste adierazle batzuez gain; adierazle sintetikoa da, eta Nafarroan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aurrerapen maila Europar Batasuneko beste herrialde batzuekin erkatzeko balio du. Nafarroan adierazle hori Nafarroako Estatistika Institutuak egiten du, Genero Berdintasunerako Institutu Europarrak garatutako metodologia jarraituz, eta helburu hauek ditu:

- Deskribatzea noraino egin duen aurrera Nafarroako gizarteak genero berdintasunaren arloan, eta, alderantziz, zenbateko bidea falta zaion emakumeen eta gizonen berdintasun osoa lortzeko.
- Konparatzea genero berdintasunaren egoera Nafarroan berdintasunarekiko garapen sozial eta ekonomikoaren mailagatik erreferente baliagarri diren gizarteekin.
- Nafarroan genero berdintasunaren arloan ematen ari diren aurrerapausoak aztertzea, politikak ebaluatzeko eta jarduketa berriak diseinatzeko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde egiteko.

Horrez gain, Nafarroako Garapen Jasangarrirako Helburuei lotutako adierazleak aintzat hartu dira, batez ere bosgarren helburua, Genero Berdintasuna. Adierazle horiek harmonizatuta daude eta konparagarriak dira erkidego desberdinen artean eta Estatu mailako balioari dagokionez.

Hurrengo apartatuan Plan Estrategikoko adierazleen taula aurkeztu da; taula malgua da, eta aldizka berrikustea eta osatzea aurreikusi da, batez ere Plan Estrategikoaren bitarteko ebaluazioaren eta urteko jarraipenaren prozesuan jasotako informazioa erabiliz.

# 5.1. ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK GENERO BERDINTASUNAREN INDIZEAREN BILAKAERA NAFARROAN

| DIMENTSIOA | AZPIDIMENTSIOA | ADIERAZLEA |
| --- | --- | --- |
| ENPLEGUA | Parte hartzea | Enplegu tasa, lanaldi osoari dagokiona, sexuen arabera |
| | | Lan bizitzaren iraupena, sexuaren arabera |
| | Laneko segregazioa eta kalitatea | Lana duten herritarrak hezkuntzan, osasunean eta gizarte zerbitzuetan, sexuaren arabera |
| | | Itxaropen profesionalen indizea, sexuaren arabera |
| DIRUA | Finantza baliabideak | Batez besteko hileko soldata gordina (erosketa ahalmenaren parekotasunean), sexuaren arabera |
| | | Batez besteko errenta garbi baliokidea (erosketa ahalmenaren parekotasunean), sexuaren arabera |
| | Egoera ekonomikoa | Pobrezia egoeran ez dauden biztanleak, sexuaren arabera |
| | | S20/S80 diru-sarreren banaketa, sexuaren arabera |
| EZAGUTZA | Lorpena eta parte hartzea | Enplegu tasa, lanaldi osoari dagokiona, sexuen arabera |
| | | Itxaropen profesionalen indizea, sexuaren arabera |
| | Segregazioa | Ikasleak unibertsitate adar hauetan: Hezkuntza, Osasuna eta Ongizatea, Humanitateak eta Artea, sexuaren arabera |

| | | |
|---|---|---|
| DENBORA | Zainketa pertsonalak | Adingabeak, nagusiak edo desgaitasuna duten pertsonak zaintzen parte hartzea, sexuaren arabera |
| | | Sukaldeko eta etxeko beste lan batzuetan parte hartzea, sexuaren arabera |
| | Gizarte jarduerak | Kirol, kultura eta aisia jardueretan parte hartzea, sexuaren arabera |
| | | Boluntariotzako eta ongintzako jardueretan parte hartzea, sexuaren arabera |
| BOTEREA | Politikoa | Nafarroako Gobernuan parte hartzea, sexuaren arabera |
| | | Nafarroako Parlamentuan parte hartzea, sexuaren arabera |
| | | Udaletako osoko bilkuretan parte hartzea, sexuaren arabera |
| | Ekonomikoa | Enpresa nagusietako administrazio kontseiluetan parte hartzea, sexuaren arabera |
| | | Espainiako Bankuaren Gobernu Kontseiluan parte hartzea, sexuaren arabera |
| | Soziala | I+G-aren finantzaketa publikoari buruzko erabakietan parte hartzea, sexuaren arabera |
| | | Informazioaren baliabide publikoen kudeaketan parte hartzea, sexuaren arabera |
| | | Nabarmendutako kirol federazioen zuzendaritza organoetan parte hartzea, sexuaren arabera |

# 5.1 OSASUNA

**Espainiako Estatua**
- Osasunaren autopertzepzioa, ona edo oso ona bezala, sexuaren arabera
- Jaiotzeko bizi itxaropena, sexuaren arabera
- Jaiotzean 'osasun oneko' bizi itxaropena, sexuaren arabera

**Jokabidea**
- Erre eta edan gehiegi egiten ez duten herritarrak, sexuaren arabera
- Ariketa fisikoa egiten duten edo frutak eta barazkiak jaten dituzten herritarrak, sexuaren arabera

**Sarbidea**
- Mediku arretako premiak ase gabe ez dituzten herritarrak, sexuaren arabera
- Odontologia arretako premiak ase gabe ez dituzten herritarrak, sexuaren arabera

# 5.2. NAFARROAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLAN ESTRATEGIKOKOHELBURUEI LOTUTAKO EMAITZA ADIERAZLEAK

## I. ILDO ESTRATEGIKOA: GENERO IKUSPEGIA FORU ETA TOKI ADMINISTRAZIOEN GOBERNANTZA EREDUAN TXERTATZEA

### 1. HELBURU ESTRATEGIKOA
ERREFERENTZIAZKO BERDINTASUN ARAUDIA NAFARROARAKO GARATZEA

| HELBURU OPERATIBOAK | ADIERAZLEAK |
|---|---|
| **0.0.1.1** Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legea eta Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea foru eta toki administrazioetan betetzea ahalbidetuko duen berariazko araudia prestatzea. | -Berariazko araudia, toki eta foru administrazioak onetsitakoa, berdintasuneko erreferentziazko araudiari erantzuna emateko (kopurua eta mota) |
| **0.0.1.2.** Aurrekontu publikoak lerrokatzea berdintasun politikak erreferentziazko araudien exijentziekin garatzeko. | -NFKAren aurrekontu igoera, berdintasun politika hedatzera bideratutakoa (ehunekoa) |
| **0.0.1.3.** Berdintasunerako toki eta foru egiturak indartzea eta finkatzea. | -Berdintasun unitate propioa daukaten Nafarroako Gobernuko departamentuak (ehunekoa)<br><br>-7.000 biztanletik gorako toki erakundeak, berdintasun zerbitzu edo atala eta langile teknikaria dutenak (A edo B maila), berdintasunean espezializatua eta lanaldi osoan (ehunekoa) |
| **0.0.1.4.** Berdintasun araudiaren koherentzia eta eragin soziala ebaluatzea eta horren jarraipena egitea. | -Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legearen ebaluazioa eginda izatea<br><br>-Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 17/2015 Foru Legearen ebaluazioa eginda izatea |

## 2. HELBURU ESTRATEGIKOA
## ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ZERBITZUPEKO LANGILEEI BERDINTASUNAREN ARLOAN GAITASUN HANDIAGOAK EMATEA

| HELBURU OPERATIBOAK | ADIERAZLEAK |
| --- | --- |
| **0.0.2.1.** Genero Berdintasuna Politika Publikoetan aplikatzeko Prestakuntza Ibilbidea NFKAn ezartzea, Toki Administrazioaren errealitatera egokitzea eta jarraipena ematea. | -Berdintasun arloko prestakuntza (oinarrizkoa, kudeaketakoa eta sektoriala) jaso duten NFKAko langileen igoera, departamentu, eskumen maila eta sexuaren arabera (ehunekoa) |
| **0.0.2.2.** Genero ikuspegia txertatzea NFKAtik eskaintzen den berdintasunaren arloko berariazkoa ez den prestakuntzan. | -NFKAtik eskainitako berdintasunaren arloko berariazkoak ez diren ekintzak, berdintasun irizpideak gehitzen dituztenak (ehunekoa) |
| **0.0.2.3.** Administraziora iristen diren edo promozioa lortu duten langileei berdintasun arloko ezagutza eskatzea modu mailakatuan txertatzea, haien gaitasunen arabera (orokorrak edo berdintasuneko berariazkoak). | -Funtzio publikora sartzeko hautapen prozesuak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari lotutako edukiak gehitzen badituzte (ehunekoa) |
| | -NFKAko langileak promozionatzeko prozesuak, unibertsitate edo erakunde publiko batek emandako 150 ordutik gorako berdintasuneko prestakuntza merezimenduak baloratzen badituzte (ehunekoa) |

## 3. HELBURU ESTRATEGIKOA
## ADMINISTRAZIOEN BERDINTASUN POLITIKEK BERDINTASUNEAN ERAGIN POSITIBOA IZATEKO MEKANISMOAK GARATZEN SEGITZEA

| HELBURU OPERATIBOAK | ADIERAZLEAK |
| --- | --- |
| **0.0.3.1.** Genero ikuspegia txertatzea Administrazioak ohiko jardunean erabiltzen duen informazioa biltzean, tratatzean eta hedatzean (estatistikak, azterketak, memoriak, planak, eta abar). | -Pertsonei buruz ari direnean sexu aldagaia jasotzen duten estatistika eragiketak, departamentuka (ehunekoa) |
| | -Sektore esparruetan emakumeen eta gizonen egoera eta posizioa ezagutzeko egindako azterlanen gehikuntza, departamentuen arabera |

| HELBURU OPERATIBOAK | ADIERAZLEAK |
|---|---|
| **0.0.3.2.** Tresnak sortzea genero ikuspegia kontratazioetan eta laguntza publikoetan txertatzeko, jarraipena egiteko eta eragina ebaluatzeko, kontratazioen eta laguntza publikoen foru legeditik abiatuz. | -Kudeatzen dituzten kontratu eta dirulaguntza publikoetan berdintasun klausulak txertatzeko jarraibide homogeneoak jarraitzen dituzte NFKAren departamentuak (ehunekoa)<br><br>-Berdintasuneko egiturak dituzten toki erakundeak, kudeatzen dituzten laguntza publiko eta kontratuetan berdintasun klausulak txertatzeko berariazko jarraibideak onetsi dituztenak (ehunekoa) |
| **0.0.3.3.** Administrazioaren komunikazio, publizitate eta kontu emateko politika berdintasunarekin lerrokatzea. | -Nafarroako Gobernuaren webgunean argitaratutako albisteen gehikuntza, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerantz aurrera egiteko departamentuek egiten duten ekarpena ikusarazten duten albisteak, hain justu ere (ehunekoa)<br><br>-Berdintasun egiturak dituzten toki erakundeak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun arloan egiten duten lanaren inguruko eduki eguneratuak webgunean jasotzen badituzte (ehunekoa) |
| **0.0.3.4.** Genero ikuspegia toki eta foru administrazioen araudi, plan, programa eta jarduketa estrategikoetan txertatzen sakontzea. | -Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin lerrokatzea egotea hobetu duen NFKAko araudiaren gehikuntza, genero eraginaren aurretiko ebaluazioa egitearen ondorioz, departamentuka (ehunekoa)<br><br>-Berdintasun egiturak dituzten toki erakundeak, araudian genero eraginaren aurretiko ebaluazioak sistematikoki egiteko jarraibideak onartuta badituzte (ehunekoa) |
| **0.0.3.5.** Genero ikuspegia daukaten aurrekontu plangintzako prozesuak garatzen jarraitzea eta finkatzea. | -Aurrekontu plangintzan genero ikuspegia txertatzen duten Nafarroako Gobernuko departamentuak (ehunekoa) |
| **0.0.3.6.** Pertsonen kudeaketa politikan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioa aintzat hartzea. | -NFKAko langileen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana prestatzea eta ebaluatzea |
| **0.0.3.7.** Emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatuaren printzipioa bermatzeko irizpideak administrazio publiko guztietara hedatzea ahalbidetuko duten tresnak garatzea. | -Emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua duten NFKAko zuzendaritza organoen eta/edo kide anitzeko organoen gehikuntza (ehunekoa) |
| **0.0.3.8.** Berdintasunari ekarpena egitea administrazioen plangintza multzotik. | -Berdintasuneko plan sektorialak dituzten NFKAko esparruen gehikuntza, motaren arabera (ehunekoa) |

## 4. HELBURU ESTRATEGIKOA
BERDINTASUNERAKO ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA, LANKIDETZA ETA PARTE HARTZEA SUSTATZEA

| HELBURU OPERATIBOAK | ADIERAZLEAK |
| --- | --- |
| **0.0.4.1.** Administrazioetan berdintasunerako koordinazio tresnak eta espazioak finkatzea. | -Berdintasunerako departamentu barruko egiturak dituzten NFKAko departamentuak (ehunekoa)<br><br>-Berdintasunerako arloak edo egiturak dituzten toki erakundeak, berdintasun politikak arlo barruan koordinatzeko batzordeak edo espazioak badituzte. |
| **0.0.4.2.** Berdintasunerako erakundearteko lankidetza eta koordinazioa indartzea. | -Berdintasunerako erakundearteko koordinaziorako espazioen gehikuntza (ehunekoa) |
| **0.0.4.3.** Gizarte zibilaren parte hartzea eta eragina handitzea, bereziki emakumeen mugimenduena eta mugimendu feministena, toki eta foru administrazioen berdintasunerako politikak garatzean. | -Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren lanak eragin handiagoa izan dezan NFKAk ematen dituen aurrekontu baliabide eta baliabide teknikoen gehikuntza |
| **0.0.4.4.** Emakumeek, dagokien aniztasunean, politika publikoak ezagutzea, parte hartzea eta eragina izatea sustatzea, Gobernu Irekiaren eta gardentasunerako beste tresna batzuen bitartez. | -Gobernu Irekiaren bitartez politika publikoei proposamenak egiten dizkieten emakumeen, emakume elkarteen edo emakumeen eskubideak ordezkatzen dituzten elkarteen ehunekoaren gehikuntza (ehunekoa) |

# II. ILDO ESTRATEGIKOA:
# GENERO BERDINTASUNA DUEN EREDU SOZIOEKONOMIKORANTZ URRATSAK EGITEA



## 5. HELBURU ESTRATEGIKOA
ZAINKETEK BIZITZAREN JASANGARRITASUNERAKO DUTEN BALIOA ONARTZEA

| HELBURU OPERATIBOAK | ADIERAZLEAK |
|---|---|
| **0.0.5.1.** Emakumeei zaintzeko agindu patriarkala ezartzen dieten estereotipo eta sinesmenak desmuntatzea, zeinak zainketen banaketa desorekatuan islatzen baitira. | -Adingabeak, pertsona nagusiak edo desgaitasunen bat duten pertsonak zaintzeko jarduerak egiten dituzten gizon kopuruaren gehikuntza (18 urte eta gehiagoko populazioaren ehunekoa)<br><br>-Zaintza arrazoien ondoriozko emakumeen jarduerarik ezaren tasa jaistea<br><br>-Zaintza eta etxeko lanetan egunero batez beste emandako denboran genero arrakala murriztea |
| **0.0.5.2.** Aldizkako informazioa izatea, Nafarroak zainketen arloan zer-nolako jarrera eta bilakaera duen jakin ahal izateko, hainbat ikuspegi kontuan hartuta. | -Nafarroan zaintza lan ordaindu eta ez-ordainduen egoera eta bilakaera aldizka ezagutzeari buruzko estatistika eragiketen gehikuntza, baita zaintza lanen pertzepzio soziala eta etxean zaintza lanen banaketa erabakitzeko modua ere<br><br>-Zainketen eskari sozialari zuzendutako emaitza publikoa hobetzeko ikerketa eta azterlanen gehikuntza |
| **0.0.5.3.** Administrazioen konpromisoa, lankidetza eta koordinazio instituzionala sustatzea, zainketak eta horien hornikuntza politika publikoen erdigunean jartzeko. | -Zainketen aldeko Foru Ituna prestatu eta abian jartzea<br><br>-Zainketen aldeko toki itunak dituzten Nafarroako toki erakundeak (ehunekoa) |
| **0.0.5.4.** Zainketak banatzeko eredu publiko bat sustatzea, pertsona guztiei bizitzarako beharrezkoak diren zainketak emanen dizkien sare instituzional sendo bat garatzea ahalbidetuko duena, eremu horretan lan egiten duten pertsonen enpleguaren kalitatea bermatuta. | -Zaintza zerbitzuen eta baliabideen zorro publikoa handitzea<br><br>-Zainketen sektorean enplegu publikoko plaza kopurua handitzea |

## 6. HELBURU ESTRATEGIKOA
## EMAKUMEEN POBREZIA MURRIZTEA NAFARROAN

| HELBURU OPERATIBOAK | ADIERAZLEAK |
|---|---|
| **0.0.6.1.** Nafarroako errealitate sozial eta ekonomikoari buruzko aldizkako azterketan pobreziaren feminizazioaren dimentsioa (komunitateko emakumeek pobrezia pairatzeko duten arrisku handiagoa) eta horren kausak barne hartzea. | -Pobrezia edo gizarte bazterketako arriskuan dauden emakumeen eta gizonen proportzioaren bilakaera, pobreziaren atalase nazionala aintzat hartuz, sexuaren arabera (AROPE adierazlea)<br><br>-Nafarroan pobreziaren feminizazioa aintzat hartuko duten esparru sozial eta ekonomikoko plan eta estrategien gehikuntza |
| **0.0.6.2.** Nafarroan emakumeen eta gizonen arteko soldata eta pentsio arrakalak murriztea. | -Nafarroan emakumeen eta gizonen arteko soldata arrakala murriztea (ehunekoa)<br><br>-Genero arrakalaren beherakada pentsioetan, kotizaziopekoak zein kotizazio gabeak (ehunekoa) |
| **0.0.6.3.** Ahulezia handiagoa izateko joera duten emakume taldeei (ama bakarrekoak, desgaitasuna duten emakumeak, genero indarkeriaren biktimak, iraupen luzeko edo oso luzeko langabeak, eta abar) zuzendutako politika sozialak eta ekonomikoak indartzea, eta horien eragina ebaluatzea. | -Enpleguko politika aktiboetatik ahulezia handiagoko egoerei aurre egin behar dieten emakumeak laneratzeko zuzendutako aurrekontuaren igoera<br><br>-Nafarroan Enplegu Sozial Babestuaren bilakaera sexuaren arabera<br><br>-Genero arrakala murriztea lanaldi partzialeko populazio landunaren artean<br><br>-Pobrezia edo gizarte bazterketako arriskuko hiru irizpideetatik gutxienez batean dauden emakumeen ehunekoa gutxitzea: pobrezia erlatiboko arriskuan egotea (pobreziaren atalase nazionala aintzat hartuz), gabezia material larriko etxeetan bizitzea edo lan intentsitate baxuko etxeetan bizitzea. |

## 7. HELBURU ESTRATEGIKOA
## NAFARROAKO ENPRESA ETA ERAKUNDEETAN BERDINTASUNAREN ALDEKO KONPROMISOA SUSTATZEA

| HELBURU OPERATIBOAK | ADIERAZLEAK |
|---|---|
| **0.0.7.1.** Nafarroako enpresei eta erakundeei berdintasuna beren kudeaketan txertatzeak zer onura eta errentagarritasun dakarzkien identifikatzea ahalbidetuko dien komunikazio politika garatzea. | -NFK-ko enpresek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna haien kudeaketan txertatzeak ekarriko lituzkeen onurak ulertzeko Nafarroako Gobernuaren komunikazio ekintzak areagotzea.<br><br>-Kontziliazio neurriak aplikatzen dituzten gizon enplegatuen ehunekoaren igoera |

| HELBURU OPERATIBOAK | ADIERAZLEAK |
| --- | --- |
| **0.0.7.2.** Genero berdintasuna enpresetan eta erakundeetan sustatzeko Nafarroako Gobernuaren estrategia erreferentziazko araudiaren eta kudeaketa eredu aurreratuaren ildoan jartzea. | -Berdintasun neurriak aplikatzeko laguntza eta aholkularitza eskatu duten 50 enplegatu baino gutxiagoko Nafarroako enpresen ehunekoaren igoera<br><br>-Berdintasun diagnostiko eta planak egiten dituzten Nafarroako enpresa eta erakundeei aholkularitza eta laguntza emateko gastu publikoaren gehikuntza |
| **0.0.7.3.** Langileen lege ordezkari diren emakumeen, emakumezko zuzendarien eta enpresaburuen kopurua handitzea, bereziki Nafarroan emakumeen presentzia txikiagoa daukaten sektore eta enpresa motetan. | -Nafarroako enpresetako administrazio kontseiluetako emakume kopuruaren gehikuntza<br><br>-Nafarroan zuzendaritza eta gerentzia postuetan dauden emakumeen kopurua handitzea (ehunekoa)<br><br>-Enpresa edo sektore hitzarmenak negoziatzeko batzordeetan parte hartzen duten emakume sindikalisten kopuruaren igoera |

## 8. HELBURU ESTRATEGIKOA
## GENERO IKUSPEGIA EZARTZEA BERRESKURATZE ETA ERALDATZE SOZIOEKONOMIKORAKO PROZESUAN NAFARROAN

| HELBURU OPERATIBOAK | ADIERAZLEAK |
| --- | --- |
| **0.0.8.1.** Gaur egungo eredu produktiboarekiko alternatiba jasangarriak sortzea, emakumeen talentua gehituz. | -Nafarroan STEM espezialitateetan matrikulatutako emakumeen ehunekoaren gehikuntza (zientzia, teknologia, ingeniaritza eta matematikak), hezkuntza mailaren arabera<br><br>-Emakumeek zuzendutako enpresa kopuruaren gehikuntza, enpresa sortu eta lehen urtean banku kreditua jaso badute |
| **0.0.8.2.** Genero ikuspegia trantsizio ekologikoko prozesuetan txertatzea. | -Ekonomia berdearen esparruan emakumeek sustatutako enpresa proiektuen kopuruaren gehikuntza<br><br>-Trantsizio ekologikoko prozesuak lantzen dituzten organo eta espazio instituzionaletan parte hartzen duten emakumeen edo emakume elkarteen gehikuntza |

| HELBURU OPERATIBOAK | ADIERAZLEAK |
|---|---|
| **0.0.8.3.** Eraldaketa digitala tresna erabilgarri bihurtzea emakumeen eta gizonen arteko berdintasun egiazkoa lortzeko. | -Genero arrakala digitala murriztea<br><br>-Administrazio publikoekin elkarrekintzan aritzeko Internet erabiltzen duen populazioa, sexuaren arabera (ehunekoa)<br><br>-I+G sektorean lanean ari diren emakumeen kopurua handitzea<br><br>-IRIS-Nafarroako Berrikuntza Digitaleko Foroan parte hartzen duten emakumeek zuzendutako edo emakumeen enpresen gehikuntza |
| **0.0.8.4.** Lurraldeari zein gizarteari dagokionez kohesionatutako Nafarroa bultzatzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipiotik abiatuz. | -Nekazaritzako ustiategietako titularrak edo jabeak diren emakumeen ehunekoaren bilakaera, nekazaritzako ustiategietako titular guztiei dagokienez<br><br>-Landa eremuan emakumeek sustatutako enpresa proiektuen kopuruaren igoera (ehunekoa)<br><br>-Udalerri txikietan (1.000 biztanletik behera) bizi den populazioaren igoera, konektagarritasun digital osora eta banda zabalera sarbidea duena, sexuaren arabera<br><br>-Garraio publikoko sarearen konektagarritasuna hobetzeko egitasmoen gehikuntza hiri, hiri periferia eta landa eremuetan |



## III. ILDO ESTRATEGIKOA:
## EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIARI BUKAERA EMATEA

### 9. HELBURU ESTRATEGIKOA
### EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAK NAFARROAN DITUEN EZAUGARRIEN GAINEAN SENTSIBILIZATZEA, HAIEI AURREA HARTZEA ETA EZAUGARRI HORIEN EZAGUTZA HANDITZEA

| HELBURU OPERATIBOAK | ADIERAZLEAK |
|---|---|
| **0.0.9.1.** Emakumeen gutxiagotasunean edo gizartean emakume eta gizonen betebehar estereotipatuan oinarritutako aurreiritziak, ohiturak eta beste edozein praktika desagerraraztea ahalbidetzen duten jokabide sozialetan aldaketak eragitea. | -Emakumeen aurkako indarkeriaren pertzepzio sozialaren bilakaera, emakumeen eta gizonen arteko botere harreman desberdinen adierazpenik larriena bezala<br><br>-Nafarroan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren sustapenarekin konprometitutako publizitate agentziak eta komunikabideak (ehunekoa)<br><br>-Nafarroan emakumeen aurkako indarkeria pairatu duten neska eta emakumeen kopuruaren bilakaera (indarkeria fisikoa, indarkeria psikologikoa, indarkeria sexuala eta indarkeria ekonomikoa) |
| **0.0.9.2.** Emakumeen aurkako indarkeriaren forma eta adierazpenen pertzepzio soziala handitzea, batez ere horren argiak ez diren adierazpenen kasuan. | -Emakumeen aurkako indarkeriaren forma eta adierazpen ez hain agerikoak ikusgarri egiteko erakundeen komunikazio ekintzen gehikuntza (ehunekoa)<br><br>-Nafarroan indarkeria sexuala eta indarkeria ekonomikoa direla medio aurkeztutako salaketa kopuruaren bilakaera |
| **0.0.9.3.** Hezkuntza sistematik emakumeen kontrako indarkeria prebenitzea eta emakumeen ahalduntzean neska garaitik laguntzea. | -Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea ikastetxeko hezkuntza proiektu eta curriculumetan txertatzen duten Nafarroako ikastetxeak, hezkuntza etaparen arabera (ehunekoa)<br><br>-Nahita material didaktiko ez-sexistak erabiltzen dituzten Nafarroako ikastetxeak (ehunekoa) |
| **0.0.9.4.** Indarkeriaren prebentzioa indartzea esparru publiko eta pribatuan, aldagaien arabera ezaugarrietara egokitutako neurrien bitartez (adina, kultur jarduerak, desgaitasuna, eta abar). | -Gazteei zuzendutako emakumeen aurkako indarkeria digitala/ziberindarkeria prebenitzeko programen gehikuntza, programa motaren arabera (ehunekoa)<br><br>-Jai, kirol eta aisialdi espazioetan emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta horren inguruan sentsibilizatzeko protokoloak dituzten 7.000 biztanletik gorako toki erakundeak (ehunekoa)<br><br>-Emakume nagusien, desgaitasunen bat duten emakumeen, emakume gazteen, arrazializatuen eta/edo migratuen kasuan indarkeria prebenitzeko tresnen gehikuntza |

| HELBURU OPERATIBOAK | ADIERAZLEAK |
|---|---|
| **0.0.9.5.** Emakumeen aurkako indarkeriaren kausak, hedapena eta ondorioak ikertzea indartzea, seme-alabengan eragindako ondorioak barne, genero ikuspegi intersekzionaletik. | -Nafarroan emakumeen aurkako indarkeria ezagutzen sakonduko duten azterlan eta ikerketen gehikuntza, motaren arabera (ehunekoak)<br><br>-Landa eremuan emakumeen aurkako indarkeriari arreta ematean gehitutako hobekuntzak, espazio horretan indarkeriari emandako arretaren estaldura eta kalitatearen analisitik abiatuz. |
| **0.0.9.6.** Emakumeen aurkako indarkeriaren eraginari buruzko aldizkako informazio homogeneoa batzen, tratatzen eta hedatzen sakontzea Nafarroan. | -Nafarroan emakumeen aurkako indarkeria arretari eta horren eraginari buruzko aldizkako txostenetan erabilitako aldagai moten gehikuntza<br><br>-Gizarte eta osasun esparruetan antzemandako emakumeen aurkako indarkeria kasuen gehikuntza (ehunekoa) |
| **0.0.9.7.** Jarraipena ematea Nafarroan emakumeen aurkako indarkeriari arreta emateko baliabideen ebaluazioari, bizirik atera diren biktimen iritzia gehituz. | -Emakumeen aurkako indarkeria kasuetan arreta emateko baliabide publikoen gehikuntza, jasotako arretari dagokionez biktimen iritzia eta gogobetetzea jasotzen dutenak<br><br>-Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean hedatzen duten arreta aldizka ebaluatzen duten sare publikoko baliabideak |

## 10. HELBURU ESTRATEGIKOA
## EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURREKO ERANTZUN PUBLIKOA ERREFERENTZIAZKO ARAUDIAREKIN LERROKATZEA

| HELBURU OPERATIBOAK | ADIERAZLEAK |
|---|---|
| **0.0.10.1.** Emakumeen aurkako indarkeriaren detekzio goiztiarra hobetzea. | -Emakumeen aurkako indarkeriaren detekzio eta arreta goiztiarrerako prozedurak edo protokoloak dituzten sare publikoko baliabideen kopurua<br><br>-16 eta 17 urterekin ezkontzen diren emakumeen ehunekoa gutxitzea<br><br>-Emakumeen genitalen mutilazioa pairatu duten 15 eta 49 urte arteko neska eta emakumeen proportzioa gutxitzea |

| HELBURU OPERATIBOAK | ADIERAZLEAK |
| --- | --- |
| **0.0.10.2.** Emakumeen aurkako indarkeriari zuzendutako arreta integraleko sare publikoaren estaldura eta kalitatea hobetzea, aintzat hartuz indarkeriaren agerraldi eta forma desberdinak eta foru eta toki baliabideetan esku hartzea orientatu behar duten printzipioak. | -Indarkeriatik bizirik atera diren emakumeen seme-alabetatik arreta psikologikoa jasotzen dutenen kopurua handitzea, arreta hori arreta eta berreskurapenerako sare publikoko baliabide espezializatuetatik jasotzen badute<br><br>-BAITetatik lehen arreta psikologikoa jasotzeko batezbesteko itxaronaldia murriztea, zonaka<br><br>-Krisi Zentroan artatutako emakume kopurua (indarkeria sexualetik bizirik ateratako neska eta emakumeentzako arreta integralerako baliabide berria)<br><br>-Prostituzio eta sexu esplotazioko helburuko salerosketen testuinguruetan baliabide publikoetatik arreta integrala eta espezializatua jasotzen duten neska eta emakume kopuruaren gehikuntza<br><br>-Etxebizitza publikora sarbidea duten eta indarkeriaren biktima diren emakumeen kopuruaren gehikuntza |
| **0.0.10.3.** Emakumeen aurkako indarkeriari heltzean erreparaziorako eskubidea eta mina ez errepikatzeko eskubidea gehitzea. | -Emakumeen aurkako indarkeria dela medio toki erakundeak eta NFKA pertsonatu diren zigor prozeduren kopurua<br><br>-Indarkeria matxistaren aurkako ekitaldi publikoetara edo manifestazioetara joaten diren 15 urtetik gorako pertsonen gehikuntza, sexuaren arabera (ehunekoa)<br><br>-Nafarroako Gobernuak sustatutako programa terapeutikoetan parte hartzen duten erasotzaileen kopuruaren gehikuntza |
| **0.0.10.4.** Ziurtatzea profesionalen sareak prestakuntza espezializatua, berariazkoa eta eguneratua duela. | -Oinarrizko prestakuntza eta prestakuntza espezializatua jasotzen duten arreta eta berreskurapeneko sare publikoko profesionalak, sexuaren eta esparruaren arabera (osasuna, polizia, gizartea, juridikoa eta judiziala, hezkuntza eta enplegua)<br><br>-Nafarroako Unibertsitate Publikoan Emakume eta Berdintasun Gaien Master Ofiziala bukatzen duten ikasleak, sexuaren arabera |

## 11. HELBURU ESTRATEGIKOA
## BIRBIKTIMIZAZIOA SAIHESTEA ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZAREN ETA KOORDINAZIOAREN BIDEZ

| HELBURU OPERATIBOAK | ADIERAZLEAK |
|---|---|
| **0.0.11.1.** Foru eta toki administrazioen artean koordinazioa finkatzea. | -Apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea garatzeko Ekintza Planari gehitutako hobekuntzak, ebaluazioan oinarrituz, mota eta esparruaren arabera<br><br>-Indarkeriaren aurrean jardutea koordinatzeko toki eta eskualdeko protokoloak dituzten Nafarroako udalerriak, zonaka (ehunekoa) |
| **0.0.11.2.** Erakundeen arteko koordinazioa finkatzea. | -Nafarroan Emakumeen aurkako Indarkeriaren aurrean Koordinatzeko Erakundearteko III. Akordioaren Jarraipen Batzordearen lanetik abiatuz, erakundearteko koordinazioan egindako hobekuntzak, esparruen arabera<br><br>-Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean Estatuko Gobernuarekiko etengabeko koordinazioaren emaitzak, motaren arabera |

## IV. ILDO ESTRATEGIKOA:
## GIZARTE ZIBILAREN PROTAGONISMOA SUSTATZEA EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA ERAIKITZEN ETA SENDOTZEN

### 12. HELBURU ESTRATEGIKOA
### GIZARTEAK BERDINTASUNERANTZ AURRERA EGITEA AHALBIDETUKO DUTEN BALIOAK GARATZEA



| HELBURU OPERATIBOAK | ADIERAZLEAK |
|---|---|
| **0.0.12.1.** Hezkidetza zeharkakotasunez gehitzea hezkuntza etapa guztietan (Haur Hezkuntza, derrigorrezko hezkuntza eta derrigorrezko hezkuntzaren ondokoa). | Hezkidetza proiektuak dituzten Nafarroako ikastetxeen igoera, hezkuntza etaparen arabera<br><br>-Hezkidetza prestakuntza jaso duten irakasleak, sexuaren eta hezkuntza etaparen arabera (ehunekoa) |
| **0.0.12.2.** Goi mailako hezkuntzako erakundeek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerantz aurrera egitearekin duten konpromisoa sustatzea. | -NFKn presentzia duten eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak indarrean dituzten unibertsitateak<br><br>-Hezkuntza zientzien gradu ikasketak edo irakasleak prestatzeko masterrak egiten dituztenen ikasleetatik berdintasunari buruzko prestakuntza jasotzen dutenak, ikasketen parte gisa, sexuaren arabera (ehunekoa) |

| HELBURU OPERATIBOAK | ADIERAZLEAK |
|---|---|
| **0.0.12.3.** Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioa bermatuko duen hezkuntza ez-formala sustatzea. | -Irakasten dituzten irakasleen berdintasun prestakuntzaren beharrizana aintzat hartzen duten kirol, kultura eta aisialdi egitasmoen gehikuntza (ehunekoa)<br><br>-Diseinuan genero ikuspegia txertatzen duten hezkuntza ez-formaleko baliabideen gehikuntza |
| **0.0.12.4.** Emakumeek eta neskatxek kirol jarduera modu jarraituan egitea bultzatzea, kirol diziplina eta modalitate ugaritan, aisialdi gisa zein modu lehiakorrean. | -Nafarroan kirolaren eta ariketa fisikoaren bilakaera, adinaren eta sexuaren arabera<br><br>-Eskola kirolaren parte hartzearen bilakaera, sexuaren, modalitatearen eta kirol diziplinaren arabera<br><br>-Kirol lizentzien kopuruaren bilakaera, sexuaren eta federazioaren arabera |
| **0.0.12.5.** Genero arrakalak saihestea emakumeek eta gizonek kulturan duten parte hartzean. | -Nafarroako kultura zentro eta museoetan obrak ikusgai jarri, programazioetan esku hartu eta bildumetan obrak dituzten emakumeen eta gizonen kopuruaren bilakaera<br><br>-Nafarroan emakumeen eta gizonen berdintasunerantz aurrera egitean emakumeen eta emakume taldeen ekarpenaren balioa nabarmenduko duten ekintzen kopuruaren gehikuntza |

## 13. HELBURU ESTRATEGIKOA
## EMAKUMEEN AHALDUNTZEA SUSTATZEA, ETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUN ERAGINKORRAREN ERAIKUNTZAN PARTE HARTZEA, PROPOSAMENAK EGINEZ

| HELBURU OPERATIBOAK | ADIERAZLEAK |
|---|---|
| **0.0.13.1.** Laguntzea emakumeek bizitza osasungarriak izan ditzaten eta haien osasunaren gaineko erabakiak modu autonomoan har ditzaten. | -Genero ikuspegia txertatuko duten osasun esparruko azterketak egiteko aurrekontua handitzea<br><br>-Osasun egoeraren pertzepzioa, ona edo oso ona bezala, sexuaren arabera (15 urte edo gehiagoko populazioaren ehunekoa)<br><br>-Azken lau asteetan mina izan duen populazioa eta depresioa edo antsietatea duen populazioa, sexuaren arabera (15 urte edo gehiagoko populazioaren ehunekoa) |

| HELBURU OPERATIBOAK | ADIERAZLEAK |
|---|---|
